eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Department of Analytical Chemistry - Kimika Analitikoa saila

Analytical approaches in technology development for quality medical cannabis production

Kalitatezko kannabis medizinalaren produkziorako teknologiaren garapenerako erraminta analitikoak

Markel San Nicolas Oruetxebarria

2024

Doktorego tesi honek iraun dituen lau urteak gorabehera profesional eta emozionalez beteta egon dira, denbora luzez hedatu den errusiar mendi baten antzera. Begirada denboran atzera botaz, aldi oso pozgarria izan dela ikus dezaket, zeinetan, azkenean, aldi hau osatzeko gai sentitzeak eta merezi izan dezakedala uste izateak, poztasunez bete eta harro sentiarazten nauen. Izan ere, tesiak iraun dituen urte hauek ez dira guztiz errazak izan, erori eta altxatzearen legeak gidatu baititu joan-etorrien itsasaldiak, baina tesia paper gainean ikustea eta azken helburu hau lortzea ezinezkoa izango zitzaidakeen ondoan izan zaituztedanen laguntzarik gabe. Horregatik, ezer baino lehen, zuei bihotzez eskertzea dagokit.

Eskerrik asko, lehenik eta behin, Pot Sistemak S.L.-ko jendeari, zuengatik izango ez balitz ez nintzateke honaino heldu izango eta. Zuek eman zenidaten lehen aukera eta zuek helarazi zenidaten tesi proiektu hau abian jartzeko lehen proposamena. Ikasketak amaitu berri, une hartan zuen talde atsegingarri hartan sartzeko aukera eman izanagatik ikaragarri esker oneko nauzue gaur eta, esan bezala, lehen aukera horregatik izan ez balitz, gaur ez nintzateke doktorego tesi honek azken hitzak idazten egongo. Ezin ahaztu ere gerora ezagutu nuen Sovereign Fields-eko taldea, haien gabe ikerketa gauzatzeko landare kultiborik ere ez litzateke egongo eta.

Ibilbide hau ezin izango nuke burutu IBeA ikerketa taldeko lagun eta lankideengatik izango ez balitz ere. Tesi hau aurrera ateratzeko ikasi behar izan dudan dena zuek erakutsi didazue eta zuen denen elkartasunagatik izango ez balitz, gaur ez nintzateke orrialde honen aurrean hau idazten egongo. Eskerrik asko bihotzez, beraz, ikasketa prozesu honetan tesi hau aurrera ateratzeko laguntza eta indar gogoa jarri duzuenei, nahiz eta zuek txikia izan dela uste, niretzako esfortzu horrek ikaragarri suposatu du eta. Denoi mila esker, guztion arteko esfortzua izan da hau eta. Esker oneko nauzue denok. Horregatik ere, nola ahaztu mintegiko lankideez, egunerokotasunari aurrera jarraitu nahi izateko txinparta eta arima eman diozuenak. Hau zuengatik doa ere, elkarlana aburu, bakarkako helburuen lorpenak haiek partekatzeko talderik gabe zentzurik ez duela erakusteagatik. Eskerrik asko laneko basamortuaren erdian mintegiaz ongizate oasia egitegatik.

Baina barkatuko nauzue, batez ere, nire esker onak Aresatz eta Oierri zuzentzen badizkiet. Eskerrik asko proiektu hau burutzeko jarri dituzuen gogo, indar, ahalegin eta buruhauste denengatik. Izan ere, ibilbide hau errusiar mendia izan da denontzako, zuek barne, eta bihotzez eskertzen dizuet uneoro buru-belarri hor egoteko erabakia hartu eta mantendu izanagatik. Zuen eskutik ikasketa eta formakuntza prozesua izan den tesi honetan erratzeko guztizko askatasuna topatu dut, norberak bidean agertzen diren galde rei erantzuna bilatzeko libertateak aurkezten dituen erronkekin, baina momentu oro zuen sostengua ikusiz. Denbora honetan, asko ikasi dut horrela, zientzia esparrutik haratago, eta horren hein handi bat zuei zor dizuedala uste dut. Mila mila esker bihotzez, beraz.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagoz noski, familia, bizitzak aurrean jartzen dizkigun oztopoen artean, aurrera jarraitzeko arrazoirik garrantzitsuena. Eskerrik asko aita, ama, Arrate eta etxeko guztiei, zuen betiko baldintzagabeko euskarriak gaur naizen pertsona bihurtu naute eta. Eskerrik asko nigan momentu oro sinistu izanagatik eta aurrera jarraitzeko indarrak emateagatik. Eta ez aparte, ezin lerro hauek itxi, nola ez, Bego, zuk merezi dituzun meritu mugagabeengatik bihotzez eskerrak eman gabe, tesi oso honek iraun dituen egun guzti eta bakoitzean alboan uneoro egon zarena, nire errusiar mendi honen gorabeherak zureganatuz, eta zure indar, alaitasun eta bizi grina elkarbanatuz. Ibilbide oso honen helmugara heltzea ezinezkoa izango litzateke alboan eduki izan ez bazintut, horregatik, bihotzez, eskerrik asko. Espero dut ni zutaz nagoen bezain

harro egotea. Hau zuengatik eta zuentzako doa batez ere, zuek gabe ez bainintzen gaur naizena izatera heldu izango eta. Bihotz bihotzez, mila esker.

Overview

This research was carried out under the premise of exploring new analytical technologies regarding the cultivation of cannabis for medical purposes, due to the remarkable growth in the popularity of this plant over the last decade. As the forecasts of its expansion and integration into worldwide health systems are positive, accurate and precise analytical methodologies need to be developed to ensure proper control of products for medical and pharmaceutical purposes of this provenance. This research project therefore studied the feasibility of two analytical approaches for this purpose.

On the one hand, an untargeted metabolomic research of the cannabis plant was conducted with the aim for searching constitutive metabolic markers to predict the adaptability of cannabis varieties to tropical climates, since some of the countries that are integrating cannabis into their regulatory legislation exhibit climatic features such as high temperature and humidity, which may influence the bioproduction yield of bioactive compounds in the plant. To perform this research accurately, an optimisation of the methodology to be applied was previously performed, so that the determined procedure would offer the broadest possible metabolic coverage and thus capture metabolites from a wide polarity range through a single analytical method, based on liquid chromatography coupled to high-resolution mass spectrometry (LC-HRMS) analysis.

On the other hand, the viability of hyperspectral imaging as a non-invasive analytical technique was studied for its integration into the quality control and traceability assurance workflows of cannabis chemotypes in the cultivation facilities. Since the expertise around cannabis cultivation methodologies originates from a clandestine background, the practices to accomplish it might questionably lack strict control, so this methodology is presented as an opportunity for its integration in the automated processes of the medical cannabis production industry in compliance with the product control standards.

Laburpena

Ikerketa lan hau erabilpen medizinalerako kannabisaren kultibazioan teknologia analitiko berritzaileak aztertzeko beharrizanaren pean egin zen, azken hamarkadan zehar landare honek izan duen ospearen hazkunde nabarmenaren ondorioz. Kannabisa munduko osasun-sistemetan hedatzeko eta integratzeko aurreikuspenak positiboak direnez, metodologia analitiko doi eta zehatzak garatzea beharrezkoa da, jatorri honetako aplikazio medizinal eta farmakologikorako produktuen kontrol egokia bermatzeko. Ikerketa proiektu honetan, beraz, jomuga honetarako bi erraminta analitikoren bideragarritasuna aztertu zen.

Alde batetik, kannabis landarearen ikerketa metabolomiko ez-zuzendua gauzatu zen, kannabis barietate ezberdinek klima tropikaletara egokitzeko duten gaitasuna aurreikusteko markatzaile metaboliko eratzaileak bilatzeko. Izan ere, kannabisa beren legeria erregulatzaileetan integratzen ari diren herrialde batzuek ezaugarri klimatiko hauek aurkezten dituzte, hala nola, tenperatura eta hezetasun altuak, eta giro-faktore hauek eragina izan dezakete landarearen konposatu bioaktiboen produkzioaren errendimenduan. Ikerketa hau zehatz-mehatz gauzatzeko, aplikatu beharreko metodologia aldez aurretik optimizatu zen, jarraitu beharreko prozedurak ahalik eta estaldura metaboliko zabalena eskaintzeko eta, horrela, polaritate izaera desberdineko metabolito sortak metodo analitiko bakar baten bidez eskuratzeko, bereizmen altuko masa-espektrometria eta kromatografia likidoan oinarrituta.

Bestalde, irudi hiperespektralen bideragarritasuna aztertu zen teknika analitiko ez-inbaditzaile gisa, kultibazio-instalazioetan kannabis kemotipoen trazabilitatea bermatzeko kalitate-kontroleko lan-fluxuetan integratzeko. Kannabisa kultibatzeko metodologien inguruko ezagutza legez-kanpoko aurrekarietatik eratorria denez, hura gauzatzeko praktikek kontrol-zorrotzerako neurriak faltan izan ditzakete eta, beraz, metodologia hau aukera gisa aurkezten da erabilpen medizinalerako kannabisaren produkzio-industriako prozesu automatizatuetan integratzeko, horrela produktuen kontrol-arauak betez.

Table of contents

SARRERA - INTRODUCTION

1. Kannabisaren eta haren osagai bereizgarrien sarrera

Kannabisa, zientifikoki *Cannabis sativa L*. bezala ezagutzen dena, urteko landare dioiko bat da, hasiera batean Asiako mendebaldeko lehen nekazal gizarteetan landu zena [1]. Bere leinu taxonomikoa honela egituratuta dago [2]:

Erreinua: Viridiplantae

Dibisioa: Streptophyta

Klasea: Eudicotyledons

Azpiklasea: Rosids

Ordena: Rosales

Familia: Cannabinaceae

Generoa: *Cannabis*

Espeziea: *Cannabis sativa* L.

Landare honen lehen erabilera medikoen erregistroak K.a. 2800 ingurukoak dira. Osasun-arazo ugaritarako tratamendu gisa erabiltzen zen garaia izan zen hura, nahiz eta uste den lehenago ehungintzarako material gisa ere erabiltzen zela. Kannabisa Txinako medikuntzaren aitatzat hartzen den Shen Nung enperadorearen farmakopean zegoen [3]. Geroztik, kannabisaren erabilera eta landaketa munduko beste eskualde batzuetara hedatu zen pixkanaka, nazioarteko harreman komertzialak medio. Horrela, denboraren poderioz, kannabisa munduko drogarik zabalduenetako bat izatera iritsi da. Gaur egun, azken estimazioen arabera, kannabisaren munduko merkatuak 2024an 60.79 mila milioi dolarreko fakturazioa izatea espero da, eta urteko hazkunde-tasa estimatua % 14.06koa izanik (CAGR 2024-2028), 2028rako 102.90 mila milioi dolarreko guztizko merkatu-bolumenera iritsi daitekeela uste da (*1. Irudia*) [4]. Beraz, erabileraren eta laborantzaren inguruko iragarpenak oso positiboak dira, eta kultibo honi loturiko enplegua ere are gehiago hedatuko dela aurreikusten da.



1. Irudia: Aurreikusitako mundu mailako kannabis merkatuaren irabaziak

Baina, zergatik izan da hain ezaguna kannabisa historian zehar, eta zergatik jarraitzen du oraindik hala izaten? Beno, gaur egun, ezaguna da kannabisak efektu psikoaktiboak eragiten dituela kontsumitzen denean, Δ^9-tetrahidrokannabinolaren (THC) presentziaren ondorioz, baina 1964. urtera arte hau ez zen gauza jakina izan, Dr. R. Mechoulamek eta Dr. Y. Gaonik konposatua isolatu eta identifikatu zuten arte hain zuzen ere [5]. Gainera, Mechoulam izan zen, Y. Shvo doktorearekin batera, urte bete lehenago kannabis landarean kannabidiola (CBD) isolatu eta identifikatu zuena [6]. Dena den, kannabinola (CBN) izan zen kannabisetik bere forma puruan isolatu zen lehen konposatua, 1899an hain zuzen ere, eta garai hartan modu okerrean kannabisaren efektu psikoaktiboen erantzule nagusi gisa aurkeztu zen [7], [8]. Aurkikuntza horien ondorengo gertaerek kannabisean zeuden antzeko konposatu gehiago azaleratu zituzten, modu honetan konposatu talde bat identifikatuz, fitokannabinoide edo kannabinoide gisa deiturikoak.

Kannabinoideak isoprenilatutako erresorzinil poliketido gisako konposatuak dira. Kannabis landarean gain beste landare batzuetan ere aurkitu diren arren [9], oso modu bereizgarrian aurkitzen dira landare-espezie honetan. Kannabinoide garrantzitsuenak *2. Irudian* agertzen diren 12ak dira, baina kopuru osoa nabarmenki handiagoa da, gutxienez 113 kannabinoide identifikatu baitira kannabis landarean [10].



<u>2. Irudia:</u> Kannabisean aurkitzen diren kannabinoide garrantzitsuenak

2. Irudian ikus daitekeen bezala, erakutsitako konposatuak 6 kannabinoide pare dira, bakoitzari dagokion bere forma neutroaz eta azido organikoaz osatuak; izan ere, kannabinoideak nagusiki azken modu horretan sintetizatzen dira kannabis landare emeen infloreszentzietako trikoma glandularretan, bide metaboliko arrunt baten bidez [11]. Lore arrek kannabinoideen oso kontzentrazio txikia izan ohi dute, hauetan trikomen edukia oso mugatua izaten baita [12]. Bere sintesia hexanoil-CoA-tik abiatzen da substratu kimiko bezala, non tetraketido sintasa entzimak (TKS) bere kondentsazioa katalizatzen duen 3 malonil-CoA molekulekin [13], modu honetan 3,5,7-trioxododekanoil-CoA osatuz [14]. Molekula hau jarraian ziklatu egiten da azido olibetolikoan (OLA) bihurtuz, azido olibetoliko ziklasa (OAC) bidezko katalizazioaren ondorioz [15], eta, ondoren, preniltransferasa aromatiko batek geranilo pirofosfatoaren (GPP) prenil taldea 2-erresorzinol posizioan txertatzea katalizatzen du, modu honetan kannabinoide aitzindaria sortuz, CBGA [16]. CBGA beste kannabinoide batzuen sintesirako oinarrizko konposatua da; eta bere sintesi bidea hiru norabidetan banatzen da THCA, CBDA eta CBCA kannabinoideen biosintesiak ahalbidetuz [17]. Kannabinoide azido horiek dekarboxilatu egiten dira gero, erreakzio espontaneo ez-entzimatikoen bidez, gehiegizko argiztapenaren, beroaren edo denboraren joanaren ondorioz, eta, horrela, THC, CBD eta CBC eratzen dira, hurrenez hurren [18]. Gainera, CBNA eta CBN-a THCA-ren eta THC-aren degradazioaren ondorioz sortzen dira, hurrenez hurren [19]. Bestalde, aurrez aipatutako gainerako kannabinoideak sortzeko, CBCA-tik abiatutako biosintesi bide gehigarriak gertatzen dira. Kannabinoideen biosintesi-bidea *3. Irudian* laburbiltzen da.



3. Irudia: *Kannabinoideen biosintesi-bidea* [20]

Baina kannabinoideez gain beste konposatu asko ere aurkitu dira kannabis landarean. Izaera desberdineko 550 konposatu baino gehiago identifikatu dira guztira [21], 200 konposatu hegazkor barne [22]. Identifikatutako konposatu horietatik guztietatik, terpenoak eta terpenoideak bereziki nabarmentzen dira. Terpenoak isoprenozko unitate txikiz osatutako hidrokarburoak dira; terpenoideak, berriz, oxigenoa duten terpenoak dira. Olio esentzialen osagai nagusiak dira, eta kannabisaren usain bereizgarriaren eta landareak duen famaren arduradun nagusiak dira [23]. Badakigu kannabisean gutxienez 120 terpeno daudela, eta normalean honela sailkatzen dira: monoterpenoak, bi isopreno unitatez osatuak (10 C); seskiterpenoak, hiru isoprenoz (15 C); diterpenoak, lau isoprenoz (20 C); eta triterpenoak, sei isoprenoz (30 C) osatuak [24]. Horietatik, 58 monoterpeno eta 38 seskiterpeno karakterizatu dira orain arte [25]. Monoterpenorik aipagarrienak limonenoa, β-mirzenoa, α-pinenoa eta linalola dira, eta, agian, baita α-terpinolenoa eta trans-ozimenoa ere [26]. Bestalde, seskiterpeno nabarmenenak honako hauek dira: β-kariofilenoa, E-β-farnesenoa, α-humulenoa eta α-bisabolola [27], [28]. Terpeno hauen egiturak *4. Irudian* ikus daitezke.



<u>4. Irudia:</u> Kannabisean aurkitzen diren terpeno garrantzitsuenak

Geroz eta eztabaida zientifiko handiagoa dago terpenoek, kannabinoideekin elkarreraginean, efektu sinergikoa eragin dezaketen ala ez. Hala balitz, profil terpeniko ezberdinek kannabinoideen profil jakin batek eskainiko lituzkeen efektu medizinalak aldatuko lituzkete [25]. Horregatik, duela gutxi, terpenoak kannabisaren erabilpen medikorako ikerketa eta garapeneko (I+G) funtsezko helburu bihurtu dira.

Horrela, kannabinoideak eta terpenoak dira kannabisaren marka bereizgarriaren konposaturik ezagunenak, landarea ezaugarritzen duten potentzial medikoaren eta terapeutikoaren erantzule baitira. Hala ere, beste konposatu-mota asko ere badaude kannabis landarean, eta horiek aktiboki inplikatuta daude landarearen metabolismoan. Konposatu horien adibide nagusiak *1. Taulan* agertzen dira [10], [21], [23], [29].

1. Taula: Kannabis landarean identifikatutako konposatu-mota ezberdinak

Konposatu taldea	**Aurkitutako konposatu kopurua**
Terpenoak	120
Kannabinoideak	113
Hidrocarburoak	50
Polifenolak	48
Azukreak	34
Konposatu nitrogenatuak	27
Gantz azidoak	22
Azido sinpleak	21
Amina sinpleak	18
Zetona sinpleak	13
Ester eta laktona sinpleak	13
Aldehido sinpleak	12
Esteroideak	11
Alkohol sinpleak	7

Beraz, ziurtasunez esan daiteke kannabisak konplexutasun kimiko zabala duela, orokorrean ezagutzen diren THC-tik eta CBD-tik haratago. Hori dela eta, kannabisa interes publikoaren arreta-zentroan egon da azkenaldian, gizartean finkatuta dauden sendagai sintetikoak ordezkatzeko jatorri naturaleko produktu medizinal gisa duen potentzialagatik.

2. Kannabisaren kemotipo aniztasuna

Kannabisaren konplexutasun kimikoa alboratuta, kannabisaren espeziearen barruan bi talde nagusiren arteko bereizketa orokorra egin zen bere taxonomian oinarrituta: *cannabis sativa* eta *cannabis indica*. Sailkapen hori Meijer eta van Soest-ek sartu zuten literatura zientifikoan [30]. *Sativa* gisa sailkatutako kannabis-landareen ezaugarri nagusiak hauek dira: foliolo estuak, altuera handiko hazkuntza eta heltze berantiarra. *Indica* landareak aldiz, foliolo zabaleko eta zuhaixka gisako hazkuntzadun heltze goiztiarreko landare gisa definitu ziren [31]. Hain ezaguna ez den beste azpiespeziea *rudelaris* gisa izendatu zen. Europa ekialdean eta Errusian dokumentatua, morfologiaz tamaina txikikoa eta hiru folioloz osatutako hostoak dituena, eta THC-ren eduki nahiko baxuak aurkezten dituena. Azpiespezie honen ezaugarri nagusia autolorakuntzaren atributua da, ez baitu fotoperiodoaren indukzioarekiko menpekotasunik (*5. Irudia*).



5. Irudia: Cannabis sativa, indica eta ruderalis azpiespezieen arteko ezberdintasun morfologikoak. Irudiaren iturria: John M. McPartland. Cannabis and Cannabinoid Research. Dec 2018.203-212. http://doi.org/10.1089/can.2018.0039 [31]

Hala ere, kannabisaren legez-kanpoko kultibazio ezaugarri nagusia genetika-Mendeliarrean oinarritutako garapen-hazkuntza izan da beti [32]. Hala, landarearen ezaugarri psikoaktiboak hobetzeko helburuarekin egindako garapenaren ondorioz, gaur egungo *sativa* eta *indica* azpiespezieen arteko desberdintasuna ezerezera diluitu da. Modu honetan, barietate ezberdinen arteko bereizketarako gaur egungo irizpidea kemotipoan oinarritzen da, kannabis landareko kannabinoide nagusien proportzioen arabera definitzen dena, batez ere THC-an eta CBD-an oinarrituz. Kannabisaren barruan bost kemotipo bereiz daitezke, *2. Taulan* laburbiltzen direnak. I, II eta III kemotipoak dira klaserik ezagunenak, THC eta CBD eduki esanguratsuak dituztenak baitira.

2. Taula: Kannabinoide-edukiaren araberako sailkapen irizpideak

Kemotipoa	Kannabinoide edukiaren erlazioen araberako sailkapena
I	≈ [THC]/[CBD] >10
II	≈ 3 > [THC]/[CBD] > 0.3
III	≈ [THC]/[CBD] < 0.1
IV	[CBG] >> [THC] & [CBD]
V	Ia kannabinoiderik ez

Horrela, gaur egun, sailkapen hori zehatzagoa da, *sativa/indica* bereizketa zaharkituta geratu baita. Gainera, azken bereizketa horrek ez du zorroztasun zientifikorik, sailkapen bernakularra baita; beraz, ikuspegi zientifiko batetik, egokiagoa da kannabisa landareak edo barietateak kannabinoideen eta terpenoen profilaren arabera kategorizatzea, profil hori faktore genetikoen menpe baitago.

Badakigu kannabis-landare baten kemotipoa B locus-eko bi alelo kodominanteren mende dagoela, B_D and B_T, eta horiek dira, hurrenez hurren, landareko CBDA-ren eta THCA-ren presentziaren erantzuleak [33]. Ondorioz, B_T/B_T alelodun kannabis barietateak I kemotipokoak dira, B_D/B_D dutenak III kemotipokoak dira eta B_D/B_T alelo ezberdinak dituzten barietateek kannabinoide nagusien eduki orekatua sortzen dute, II kemotipokoak, hain zuzen ere [34], [35]. Bestalde, IV kemotipoko kannabis-landareak B locus-ean funtzionalak ez diren aleloen (B_0) emaitza dira. CBGA-tik CBDA-rako bihurketa biosintetikoa inhibitzen dute alelo hauek, emaitza gisa nagusiki CBGA duten landareak emanez [36].

Beraz, kemotipo ezberdinen existentzia oso gai erakargarria bihurtu da erabilera medizinaleko eta farmakologikoko kannabisaren esparruan, espezie honen barietate ezberdinek giza gorputzean eragin dezaketen eragin ezberdinak direla eta.

3. Zerk bihurtzen du kannabisa hain etorkizun handiko alternatiba medikoa?

Kannabisak alternatiba mediko natural gisa hainbesteko fama irabazi izanaren arrazoia kannabinoideek giza nerbio-sistemaren hartzaileekin duten interakzioan datza, giza-endokannabinoide sistema (ECs) bezala ezagutzen den interakzioan [37]. Sistema endokannabinoideak hartzaile neurologikoz (CB), ligando endogenoz (endokannabinoideez) eta hauen biosintesia eta degradazioa eragiten duten entzimez osatzen da. Neurosistema honek funtsezko zeregina betetzen du hainbat prozesu fisiologikotan, hala nola, gosearen erregulazioan, minaren bitartekotzan, umorean edo memorian, eta garuneko plastikotasunaren, garapen neuronalaren eta oreka energetikoaren erregulazioaren arduraduna ere bada [33].

Bi neurohartzaile mota nagusik aktiboki parte hartzen dute ECs-an, hain zuzen ere G proteinetara (GPCR) akoplatutako hartzaileek. GPCR horietatik, CB_1R garuneko eskualdeetan adierazten da nagusiki, eta CB_2R, berriz, sistema immunologikoko zeluletan. Modu honetan, ECs-aren bidez efektu neurologiko bat eragiteko, hartzaile horiek aktibatu egin behar dira, eta hori ligando endogenoekin duten interakzioari esker gertatzen da; horien artean, anandamida (AEA) eta 2-arakidonoil-glizerola (2-AG) dira ordezkari nagusiak (*6. Irudia*) [38]. Gainera, jakina da 1. motako banilloide hartzailea (TRPV1) eta CPR55 ere jomuga posibleak direla ECs-an [39], [40].



<u>6. Irudia:</u> Endokannabinoide sistemaren irudia, bere funtzio, banaketa eta osagaiekin. Hurrengo iturritik berreskuratutako eta aldatutako irudia: O. Aizpurua-Olaizola et al. "Targeting the endocannabinoid system: future perspectives and strategies", Drug Discovery Today, vol. 22, no. 1, Jan. 2017. http://dx.doi.org/10.1016/j.drudis.2016.08.005

Endokannabinoide sistemak gertaera fisiologiko eta patologiko ugaritan rol homeostatikoa betetzen duela erakutsi du, sistema honek azkar aldatzen diren egoeretara egokitzeko gaitasuna baitu, eskaeraren araberako askapenen ondorioz. Hala ere, hainbat gaixotasun neurologikoren kasuan, hala nola Alzheimer gaixotasuna, Parkinson gaixotasuna, Huntington gaixotasuna edo esklerosi anizkoitza, endokannabinoide sistema aldatu egiten da, sistema honetan homeostasia zailduz. Horregatik, ECs-an eragitea patologia neurologiko horiei aurre egiteko helburu nagusi bihurtu da [38]. Beraz, gaixotasun horiei zuzenean ECs-a jomugan jarriz aurre egiteko, ligando endokannabinoideak modu exogenoan xurgatu beharko lirateke, eta hori zaila da konposatu horien egonkortasun kimiko txikia dela eta. Hala ere, ikusi da fitokannabinoideak agonista selektiboak direla ECs-ko CB hartzaileekiko, eta, beraz, nerbio-sistema iruzurtzeko gaitasuna dutela, giza-prozesu fisiologikoei eraginez. Modu honetan etorkizun oparoa izan dezaketen farmazeutikoki aktibo diren osagaiak (API) bihurtu dira fitokannabinoideak [41].

Ildo horretan, funtsezkoa da kannabinoideek eragindako seinaleen transdukzioak sortutako jardueraren eragina kannabinoideen hartzaileenganako selektibitatearen menpe dagoela jakitea, endokannabinoideekin gertatzen den bezala. Afinitatea aldatu egiten da konposatu bakoitzaren estereokimikaren arabera. Adibidez, THC-a agonista partziala da, bai CB_1R hartzaileentzat, bai CB_2R hartzaileentzat ere, lehenengoentzat afinitate handiagoa duelarik (*7. Irudia*) [42], [43], [44], [45]. CBD-aren kasuan aldiz, bi hartzaileekiko afinitatea oso mugatua dela ikusi da [46], [47], baina kontzentrazio nanomolarretan CB_1R-aren eta CB_2R-aren antagonista gisa jarduten du [48], CBD-ak maila horietan THC-ak eragindako eragin psikotropikoa modulatu dezakeela iradokiz. THCV-a ere CB_1R-aren agonista dela ikusi da, baina kontzentrazio txikietan bi hartzaileekiko antagonista gisa jokatzen du [49]. Bestalde, CBN-a agonista da bi hartzaileentzat [50]. Era berean, CBG-a CB_2R-aren antagonista ahula da [51]. Azkenik, β-kariofilenoaren kasua ere aipagarria da, kannabinoide gisa jokatzen duen terpeno bakarra baita, kasu honetan CB_2R-a aktibatuz [52].

Hori dela eta, kannabisak ECs-an eragindako efektuak erabat ulertzea oso lan zaila da, erantzun fisiologikoak kontsumitutako kannabinoideen profilaren araberakoak baitira erabat. Horregatik, endokannabinoideen inguruko ikerketa sakonak egiten ari dira gaur egun, erantzun fisiologiko posible bakoitzaren aurrean izan dezakeen portaera zehaztasunez deskribatzeko. Argi dago, behintzat, kannabis-kemotipo batzuek erantzun-efektu ezberdinak eragin ditzaketela, eta, beraz, patologia bakoitzean duten eragina ikertu behar da, erremediorik egokiena aurkitzeko. Ondorioz, doktorego-tesi honetan, hainbat ikuspegi analitiko aztertu dira kannabis medizinalerako hazkuntzaren kalitatea bermatzeko; izan ere, kannabis-loreek ere industria farmazeutikoan API-ak ekoizteko gaur egun aplikatzen diren kalitate-estandar guztiak bete beharko baitituzte.



7. Irudia: Ligandoek eta THC-ak CB_1R-a hartzailearekin duten elkarreraginaren bidez sortutako *seinaleen transdukzioaren irudikapen eskematikoa. Irudiaren iturria: F. Shahbazi et al "Cannabinoids and Cannabinoid receptors: The Story so Far", iScience, vol. 23, no. 7, Jul. 2020. https://doi.org/10.1016/j.isci.2020.101301* [45]

4. Erabilera medizinalerako kannabisari buruzko gaur egungo araudia

Azken urteotan, nazioarteko araudi aldaketa esanguratsuek eragin handia izan dute mundu osoko hainbat herrialdetan kannabisa helburu medikoekin ikertzeko eta garatzeko (I+G) lege-jarraibideak onartzerako orduan, halako elur-bola efektu bat sortuz. Osasunaren Mundu Erakundeak kannabisa droga narkotikoen zerrendatik kentzeko gomendioa egin zuen [53], eta, horren ondorioz, kannabisa eta kannabis-erretxina estupefazienteei buruzko Konbentzio Bakarraren (1961) IV. zerrendatik kendu ziren 2021ean, modu honetan, duela gutxi arte hartutako eredu murriztailearekin amaituz [54]. Gertaera hori abiapuntu bat izan zen kannabisak erabilera medikorako zuen potentziala aztertzeko, hainbat hamarkadatan indarrean egon zen debekua desblokeatu baitzuen. Horrela, aurrerapen burokratiko horri esker, zenbait herrialdek kannabisaren balizko efektuen ikerketari ekin diote berriki, azterketa klinikoen eta aurreklinikoen bidez.

Ameriketako Estatu Batuen kasuan (AEB), 2018an Nekazaritza Legea onartu zen [55], eta horri esker onartu ziren Marihuana Medizinalaren Legeak (MML) [56]. Lege horiek kannabisean oinarritutako produktu medikoak estatu mailan erabiltzea eta merkaturatzea ahalbidetu zuten. Gaur egun, AEB-ak osatzen dituzten 50 estatuetatik 38k MML-ak onartu dute, eta kannabisa baimendu dute erabilera sendagarrietarako. Hala ere, estatu bakoitzak berariazko zehaztapen arautzaileak ditu indarrean (*8. Irudia*). Garrantzitsua da ere maila federalean kannabisaren erabilera terapeutikoa oraindik onartu ez dela adieraztea, eta horrek oraindik muga batzuk ezartzen dituela. Hala ere, joera guztiz positiboa da etorkizunerako.



8. Irudia: Kannabisaren araudi egoera ezberdinen AEB-etako mapa [56]

Orokorki ezaguna da Estatu Batuak merkataritza askearen eta merkataritza erregulazioaren epitomea direla, eta, nahiz eta hau ikuspegi moralena edo etikoki zuzenena beti ez izan, ukaezina da munduko potentzia ekonomiko nagusietako bat den aldetik mendebaldeko herrialde askorentzat eredu ere badela. Bestalde, Kanada ere erreferentzia izan da munduan, erabilera

medikorako kannabisa arautzeari dagokionez; izan ere, Kanada izan zen 2018ko Kannabisaren Lege Federalaren bidez bere herritarrentzat kannabisa integratzeko baimena eman zuen lehen herrialdeetako bat [57]. Beraz, Ipar Amerikan erakundeen onarpenerako joera hori hedatu egin da, Europako hainbat herrialdetara ere iritsiz. Osasun-aplikazioetarako kannabisarekin lotutako kanpainak egitea erabaki duten herrialde adierazgarri batzuen artean daude Alemania, Suitza, Italia edo Portugal, besteak beste. 2017an, Alemaniako Estupefazienteen Legea ezarri zen, eta lege horren ondoren, kannabisaren erabilera medikoa onartu zen [58]. Lege hori ezarrita, Alemaniako pazienteek eskura izan dezakete kannabisa, lore lehor edo erauzi moduan, errezetarekin soilik eta gaixotasun larrietarako bakarrik. Izan ere, pazienteari dagozkion baldintzak betetzen badira, osasun-aseguruak kannabisarekin egindako terapiaren kostua itzuli behar du [59]. Italiaren kasuan, medikuen errezeta bidezko kannabisarekin egindako sendagaien baimena errealitate bihurtu zen Osasun Ministerioak onartutako formulario bereziaren bidez [60]. Aurrerago, Portugalen 83/2021 Ministro Aginduak zenbait alderdi praktiko definitu zituen kannabis sendagarriarekin lotutako jarduerak baimentzeko, hala nola kannabisarekin egindako sendagaien laborantza, fabrikazioa, merkataritza, garraioa edo inportazioa/esportazioa [61]. Lege-egoera antzekoa da Suitzan, 2022an Estupefazienteei buruzko Suitzako Lege Federala onartuta [62].

Munduko beste lurralde batzuetan ere, kannabisari buruzko legedia aldatu egin da, eta helburu medikoekin landatzea, errezetatzea edo kontsumitzea ahalbidetu da. Adibide ugari daude: Amerikan, Argentina [63], Uruguai [64], Kolonbia [65], *Saint Vincent and the Grenadines* [66] eta Jamaika [67]; Ozeanian, Australia [68]; Asian, Thailandia [69]; eta, Afrikan, Malawi, Zambia, Hegoafrika, Zimbabwe, Lesotho, Ghana eta Ruanda [70], [71], [72]. Afrikan, herrialde bakoitzak bere berezitasun erregulatzaileak ditu.

Baina kannabis sendagarria hazteko arauditik harago, badira farmakopea orokorrean kannabisaz egindako legezko sendagai batzuk. Esate baterako, Sativex ®, Epidyolex ®, Marinol ®, Syndros ® eta Cesamet™ (*3. Taula*). Sendagai horiek merkaturatzeko baimena mundu osoko hainbat herrialdetan eman da dagoeneko, eta orain arte egindako saiakuntza kliniko eta aurrekliniko gehienak sendagai horietako batzuekin egindakoak dira. Hala ere, metatutako ebidentzia orokorrak adierazten du sendagai horien ondorioek oraindik ez dutela erabat betetzen kannabisari egozten zaion potentzial medikoa, eta, era berean, nahi ez diren albo-ondorio batzuk eragin ditzaketela. Beraz, ikerketa medikoa eta farmazeutikoa oraindik abian dago kannabisetik eratorritako medikamentu eraginkorragoak garatzeko, hala nola min kronikoa, nerbio-sistemako gaixotasunak eta buruko eta portaera-nahasmenduak tratatzeko [73].

3. Taula: Kannabisean oinarritutako medikamentu komertzialak

Botika	Kannabinoide konposizioa	Aplikazio terapeutikoa	Administratzeko modua	Sortzailea	Erref.
Sativex®	THC eta CBD (1:1 erlazioa)	Espastizitatea (Esklerosi anizkoitza)	Ahozko spray bidez	GW Pharmaceuticals Limited (UK)	[74]
Epidyolex®	CBD	Lennox-Gastaut Sindromeari (LGS), Dravet Sindromeari (DS) edo Esklerosi tuberoso konplexuari (TSC) loturiko krisiak	Ahoz likido eran	GW Pharmaceuticals Limited (UK)	[75]
Marinol®	Dronabinola (THC sintetikoa)	Kimioterapiak sorturiko goragaleak eta HIESAk eragindako gose-galera	Ahoz likido edo kapsula eran	AbbVie Inc. (USA)	[76]
Syndros®	Dronabinola (THC sintetikoa)	Kimioterapiak sorturiko goragaleak eta HIESAk eragindako gose-galera	Ahoz likido edo kapsula eran	Benuvia Manufacturing (USA)	[76]
Cesamet™	Nabilona (THC sintetikoaren analogoa)	Kimioterapiak sorturiko goragaleak eta HIESAk eragindako gose-galera	Ahoz kapsula eran	Bausch Health Companies Inc. (Canada)	[77]

Espainiari dagokionez, a priori debekatuta dago kannabisa helburu medikoekin landatzea, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren (AEMPS) baimena eduki ezean. Hala ere, 2022ko ekainean, Espainiako Kongresuak kannabisa helburu medikoekin erregulatzeko esperientzien ebaluazio-txosten bat garatzea onartu zuen, kannabisaren erregularizaziorantz urrats txiki bat emanez. Dokumentuak zortzi baieztapen zerrendatzen ditu, "erabilera terapeutikoak izan ditzaketen kannabis-prestakinak" daudela adieraziz. AEMPS gaur egun gomendio-txostena garatzen ari da kannabis medizinala erregulatzeko araudiak betez eta kannabis erauzien eta prestakin estandarizatuen kalitatea bermatuz. Bide honetatik, Kannabis Medizinalaren Espainiako Elkartea (AECAME) eratu da [78]. Nolanahi ere, Espainian badaude AEMPS-ek baimendutako ikerketa-baimenak indarrean. 2024ko urtarrilean, 16 lizentzia daude, hain zuzen ere, ikerketa-jardueretarako enpresa horiei kannabisa landatzeko aukera ematen dietenak: Kannabisaren Ikerketarako Nafarroako Elkartea (ANIC), Bhalutek Sens S.L., Biobizz Worldwide S.L., Helicon Medical S.L., Bartzelonako Institutu Botanikoko Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseilua, M.P. (IBB-CSIC), Landareen Biologia Molekular eta Zelularraren Institutua (IBMCP), Nekazaritzako Elikagaien Ikerketa eta Teknologiaren Institutua (IRTA), Inveseed Technologies S.L., Mifco Biobrands S.L., Phytoplant Research S.L., Ploidy and Genomics S.L., Quorum Biomedical S.L., Trichome Pharma S.L., Ucie Ars Innovatio eta Sovereign Fields S.L.. Aurkezten den ikerketa-proiektu hau azken enpresa honekin gauzatu da.

Aurrez aipatutako herrialde horiek neurri handiagoan edo txikiagoan legedi bat garatu dute kannabisa helburu medikoekin landatzea eta erabiltzea baimentzeko, eta eredu positiboak dira mundu osoko beste herrialde askorentzat. Ondorioz, gizartean eta erakundeetan gero eta onarpen handiagoa dago, momenturen batean kannabis-loreak edo erauzkinak jatorri naturaleko sendagai gisa normalizatuko dituena.

5. Kannabis medizinalaren laborantzan kalitatea bermatzeko teknologia analitikoak

Kannabisari egozten zaion potentzial medikoaz gain, kontuan hartu behar da landare hori munduan gehien kontsumitzen den aisialdiko drogetako bat izan dela eta izaten jarraitzen duela. Ondorioz, kultiborako metodoak hobetzeko teknikak eta trebetasunak legez-kanpoko esparruan sortu eta aplikatu izan dira, non normalean ez diren kalitate-arauak betetzen. Hala ere, medikamentu batek, sintetikoa zein naturala izan, zenbait zehaztapen farmakologiko bete behar ditu fabrikazio-prozesuan kalitate-kontrola bermatzeko. Ziurtatu behar da lortutako produktuak, edozein bidetatik administratua delarik, nahi den efektua emango duela eta ez duela ustekabeko ondorio kaltegarririk eragingo. Lehen eztabaidatu den bezala, kannabisa legegintza-trantsizio garai batean dago gaur egun, oro har erregularizatzeko bidean, beraz, oraindik goizegi da kalitatea ziurtatzeko estandarrak edo APIrako betebeharrak zehazteko. Hala ere, metodologia jakin batzuk azter edo gara daitezke azken produktuaren kalitate kimikoa bermatzeko. Kasu honetan kannabisaren infloreszentziez ari gara.

Ildo horretan, ulertu behar da kannabisa, funtsean, labore bat dela, nekazaritza-sektoreko beste edozein bezala. Elikagaien industriako laboreak ekonomia globalaren bultzatzaileak dira, eta, horregatik, kalitatea betetzen dela bermatzeko, teknologiak garatu dira, eta, aldi berean, frutak, barazkiak, zerealak eta abar merkaturatzeko zehaztapenak doitu dira. Emaitza nekazaritzako elikagaien industria globalean oso garatua dagoen I+G arlo bat da, kapital-inbertsio handiek babestua, eta horiek gabe labore horien ekoizpena ezingo litzateke egungo merkaturatze-irizpideetara egokitu. Beraz, helburua labore batean oinarritutako sendagai eraginkorrak eta fidagarriak garatzea bada, horiek ekoizteko zehaztapenak eta jarraibide egokiak inplementatu behar dira, eta horrek ahalegin handia eskatzen du kannabisari egokitutako teknologiak ikertzeko eta garatzeko.

Gainera, kannabisa konplexutasun handiko landarea da, eta konposatu bioaktiboen espektro zabala du, lehen aipatutako kannabinoideak eta terpenoak kasu. Berezko konplexutasun horrek erronka gehigarriak gehitzen dizkio substantzia mediko egonkorrak eta errepikakorrak egiteari, eta hori ezinbesteko baldintza da merkaturatutako produktu farmazeutiko bat onartzeko.

Faktore horiek kontuan hartuta, arrazoizkoa da teknologia analitiko berritzaileak garatzea, edo daudenak egokitzea, kannabisaren laborantzako prozedurak edo metodologiak hobetzeko, farmaziako eta medikuntzako industrietan eskatzen diren ekoizpen-estandarretara pixkanaka hurbiltzeko helburuarekin.

Ildo horretan, funtsean ezberdinak diren bi metodologia analitiko, dagoeneko sektore horretan integratuak daudenak eta onarpen handia dutenak, kannabisaren bidean ere etorkizun handiko hautagai gisa agertzen dira. Alde batetik, irudi hiperespektrala, nekazaritzako elikagaien sektoreko ekoizpen-kateetan aspalditik erabiltzen den teknika espektroskopikoa, aipatutako gaiari heltzeko ikuspegi egokia da, teknika analitiko zuzena baita produktuen trazabilitatea eta ekoizpen-tokiko kalitate-kontrola errazteko eta bermatzeko. Bestalde, kannabis barietateek erakutsitako konplexutasun kimikoa kontuan hartuta, metabolomikaren bidezko ikuspegia landare barietateak modu holistiko edo ez-zuzendu batean aztertzeko aukera ezin hobea da. Ikuspegi horri esker, bere metabolismoa osatzen duten eta bertan aktiboki parte hartzen duten konposatu motak identifika daitezke, landarearen barne-funtzionamendua ezagutzeko, hazkuntza-garapen egoki baterako haren egokitzapen-mekanismoak ulertzen laguntzeko, eta ezagutza orokorra zabaltzeko, etorkizunean erabaki informatuagoak hartu ahal izateko.

Horrenbestez, bi ikuspegi analitiko horien bideragarritasuna aztertu da ikerketa-proiektu honetan, kannabis landareen kalitatea ziurtatuz, hau industria farmazeutiko eta medikoan integratu ahal izateko.

5.1. Irudi hiperespektrala

Patroi espazialak eta espektralak aldi berean aztertzearen garrantzia nabarmena da gaur egun hatz-marka kimikoak aztertzeko [79]; horregatik, irudi hiperespektralak (HSI), irudi-espektroskopia ere esaten zaiona, abangoardiako plataforma teknologiko bat da, irudi konbentzionala espektroskopiarekin integratzen baitu objektu baten informazio espazial eta espektral konbinatuak lortzeko. Hasiera batean, HSI teledetekziorako garatu zen, baina azken hamarkadan nekazaritzako elikagaien industrian analisi ez-suntsitzaileak egiteko tresna analitiko boteretsu gisa erabiltzen da [80].

HSI espektroskopia infragorriaren (IRS) aldaera bat dela argudia daiteke, HSI espektroen tartea, oro har, eremu elektromagnetiko horretan baitago. IRS-aren funtzionamendu-oinarriak erradiazio elektromagnetiko infragorriko konposatu baten loturek erakusten duten xurgapenaren detekzioan oinarritzen dira. Absortzio hori gertatzeko, molekula batek lotura kimiko bat izan behar du momentu dipolar handi batekin, hau da, lotura kimiko bat izan behar du elektronegatibitate ezberdineko bi elementuren artean. Espektroskopia infragorriak bibrazio molekularrei buruzko informazioa ematen du. Zehatzago esanda, energia bibrazionalen eta errotazionalen energia mailen arteko trantsizioei buruzko informazioa ematen du [81], [82].

Espektroskopia infragorriaren barruan, gehien erabiltzen den eremua infragorri hurbila da (NIRS). NIRS-ak 750 nm eta 2500 nm arteko eremu elektromagnetikoa estaltzen du, espektroskopiarako eremu erabiliena delarik, C-H, N-H eta O-H loturak dituzten konposatu organiko ugari detekta baititzake, horrela, talde funtzional kimiko desberdinak aztertuz [83], [84]. Faktore horri esker, NIRS oso tresna praktikoa da nekazaritzan errutina analisiak egiteko, oso teknika erraza baita maneiatzeko. Kannabisari dagokionez, NIRS kannabinoideen analisirako ohikoa bihurtu da, metodo azkarra eta merkea baita, zehaztasuna arriskuan jarri gabe [85], [86]. Hori kontuan hartuta, NIRS-aren eta irudien analisiaren arteko konbinazioak NIR-irudi hiperespektralen (NIR-HSI) teknika oso tresna praktikoa bihurtu du nekazaritza-industrian, analisi ez-suntsitzaileen bidezko azterketa kimikoaren balio gehigarria ekarpen garrantzitsua baita. Gainera, NIR-HSIk abantaila handia du NIRS-en ohiko analisiaren aldean. NIRS konbentzionala oso sentikorra da ur-molekulekiko bere O-H loturengatik, eta horrek interferentziak eragin ditzake analisi mota batzuetan. Hori dela eta, Europar Batasunak (EB) komisio erregulazio bat plazaratu zuen (Zb. 2017/1155), eta bertan kannabinoideen analisirako kannabis-laginen aurretratamendu gisa lehortzea eskatzen zuen prozedura esperimental bat deskribatzen da [87]. Hau da normalean jarraitu ohi den prozedura [85], [88], [89], [90], [91], [92]. Horrek esan nahi du NIRS bidezko analisiak laginak aldez aurretik lehortzea eskatzen duela, loreetako hezetasuna ezabatzeko, eta, horrela, kannabis landarean prozedura analitiko suntsitzailea eskatzen du. Bestalde, NIR-HSIk NIRS-en analisian interferentziak eragiten dituzten hezetasun-bandekin lotutako aldagai selektiboak trata ditzake, landare batean in vivo analisi ez-suntsitzailea ahalbidetuz. Hori NIR-HSIren osagai anitzeko nahasketarekiko mendekotasunaren ondorio da; izan ere, lotura espezifikoekin lotutako aldagai espektral selektiboak oso gutxitan izaten ditu, eta horrek, aldi berean, aldagai anitzeko datu tratamenduak eskatzen ditu [93].

Era ulergarriagoan azalduz, irudi hiperespektral bat hiru dimentsioko datu-matrize bat da, non bi dimentsio (X eta Y) espazialak diren, pixeletan banatuta, eta hirugarren dimentsioa (Z) dimentsio espektralari dagokion, non pixel bakoitzari dagozkion NIR espektroak kokatuko liratekeen (*9. irudia*). Horrek esan nahi du irudi hiperespektral baten espektroak ez direla elkarrengandik independenteak; beraz, irudi hiperespektral batek osagai anitzeko nahasketarekiko menpekotasuna erakusten du. Hori abantaila gisa erabil daiteke, kannabis

landareen analisi ez-suntsitzailea ahalbidetuz, eta, horrela, NIR-HSI teknika kannabis medizinalaren kalitate-kontrolerako oso tresna egokia bihurtuz [94].



<u>9. Irudia:</u> Irudi hiperespektral baten eta RGB irudi konbentzional baten arteko alderaketa. Irudiaren iturria: G. Lu and B. Fei "Medical hyperspectral imaging: A review", Journal of Biomedical Optics, vol. 19, Issue 1, 010901, Jan. 2014. https://doi.org/10.1117/1.JBO.19.1.010901 [95]

5.2. Landare metabolomika

Villate A., San Nicolas M.*, Aulas P.A., Gallastegi M., Olivares M., Usobiaga A., Etxebarria N., Aizpurua-Olaizola O., 'Review: Metabolomics as a prediction tool for plants performance under abiotic stress', Plant Science, vol. 303, no. 110789, Feb. 2021.*

DOI: 10.1016/j.plantsci.2020.110789

** A. Villate eta M. San Nicolas autoreek maila berean parte hartu dute lanean*

5.2.1. Sarrera

Klasean, irakasle batek ikasleetako bati galdetu zion: "Ba al dago etorkizuna kartetan aurreikusterik?" Ikasleak erantzun zion: "Nire arrebak posible du" Irakasleak bueltan "Benetan?" Ikasleak berehala erantzun zion "Bai, nire nota-txostena begiratu eta gurasoak etxeratzen direnean zer gertatuko den esaten dit." Txantxa izanik ere, iragarpen eredu arrakastatsu baten adibide garbia da, non notak, iragarpen markatzaileak izateaz gain, puntuagarriak diren.

Metabolomikak, gero eta interes handiagoa sortarazten du landareen hazkuntza-errendimendua diagnostikatzeko eta hazkuntza hobetzeko tresna gisa. Izan ere, markatzaile metabolikoak beste markatzaile molekular tradizional batzuk osatzen eta ordezkatzen hasi dira [96]. Landa-baldintzetan, laboreak estres abiotikoko hainbat faktoreren eraginpean egoten dira aldi berean, eta faktore horiek zuzenean eragiten diote landarearen errendimenduari (biomasaren eta konposatu espezifikoen errendimenduak, landareen morfologia, eta abar). Oraintsu frogatu da landareek estres abiotiko desberdinen aldibereko eraginari ematen dioten erantzuna bakarra dela eta ezin daitekeela besterik gabe estres ezberdin bakoitza bere aldetik aztertze soiletara estrapolatu [97]. Klima-aldaketa globalak (urteko prezipitazioen aldaketak, batez besteko tenperatura, bero-boladak eta abar) modu negatiboan eragiten du lurraren eta nekazaritzaren gainean, eta ondorioz, beharrezkoa da hazkuntza modernoko proiektuak eta laboreen egokitzapenean zentratutako planteamendu bioteknologikoak garatzea [98]. Alde horretatik, metabolomika, behar bezala diseinatutako hazkunde-agertokiekin, laginketa-estrategiekin eta datuen tratamendurako planteamenduekin, ezinbesteko tresna bihur daiteke hazlearen tresna-kutxarako [99].

Hala ere, ikuspegi metabolomikoa oso zorrotza eta konplexua da, baina bariazio genomikoaren, transkriptomikoaren eta proteomikoaren irudikapen holistikoa eskaintzen du. Metaboloma, genomaren azken produktua ezezik, barneko eta kanpoko estresatzaile askoren aztarna ere izan ahal da, eta, beraz, beste "omic" batzuek baino hobeto azal dezake sistema biologikoen eta beren ingurunearen arteko elkarrekintzak eta harekin lotutako perturbazio guztiak [100]. Ezaugarri hau bereziki interesgarria da estres abiotikoko hainbat faktore elkarrekin gertatzen ari diren agertokietan. Testuinguru horretan, metabolomikak hazkuntza-material hobetuen hautaketa erraztuko duten markatzaile espezifikoak aurkitzeko ahalmen o paroa du [101].

Interesgarria da markatzaile metaboliko "eratzaileak" eta "induzigarriak" bereiztea. Lehenengoak baldintza estandarretan neur daitezke, eta bigarrenak, berriz, estres-baldintzak ezartzen direnean bakarrik. Denbora eta baliabideak aurrezteko, aurreikuspen-eredu bat hasierako hazkuntza-fasean neurtutako markagailu metaboliko eratzaileei mugatutako ereduaren bidez eraiki beharko litzateke. Helburu hori lortzeko, beharrezkoa izango da

informazio ezkutua identifikatzeko tamaina handiko dataset horietan bereizgarriak diren metabolitoak hautatzeko metodo matematiko egokiak aplikatzea [102].

Nolanahi ere, iragarpen ereduak eraikitzeko eta baliozkotzeko, estres eszenatokiak aplikatu beharko dira aldibereko kontrol eszenatoki estandarrekin. Ondoren, eta emaitzetan oinarrituta, aurreikuspenaren eraginkortasunaren eta kostuen murrizketaren arteko oreka egokia gakoa izango da. Aldi berean, eredu prediktiboan erabilitako metabolitoen kopurua optimizatu behar da. Markatzaile kopuru handiagoak ez du zertan hertsiki lotu behar korrelazio prediktibo handiagoarekin [103]. Beraz, eredua sortzeko erabili behar den metodo ez-bideratua erabili ordez, puntuatzeko, jarraitzeko, erraza den metodo bideratua erabiltzea da helburua.

Metabolomika, iragarpen-tresna gisa, nahiko berria da landare-zientzien arloan. Hori dela eta, zenbait ikerketa egin dira ingurumen-estresaren pean egondako laboreen errendimendua hobetzeko [96], [100], [104]. Gaur egun ez dago metodo unibertsalik landareen errendimenduaren markatzaile metaboliko prediktiboak ingurumen-estresaren pean identifikatzeko. Ondorioz, ikerketa-helburuek metodo onena edo metodo egokien konbinazioa orekatu behar dute. Horretarako, hazkunde-agertokiei eta laginketa-estrategiei buruz hitz egingo dugu hurrengo azpiataletan, eta ikuspegi analitiko handiak eta ikuspegi bakoitzak eskatzen dituen tresna kemometrikoak aurkeztuko ditugu.

5.2.2. Hazkunde-egoerak eta laginketa-estrategiak

Estresaren tolerantzia ardatz duten landare-hazkuntzako proiektuetan, estres abiotikoko faktoreak aplikatuz ingurumen-baldintzak simulatzen dira. Horien artean, argi-intentsitatearekin eta fotoperiodoarekin batera (adibidez, eguneko eta gaueko argiztapen-aldien luzera), bereizgarrienak tenperatura, hezetasuna eta prezipitazio-erregimenak dira. Hala ere, beste aldagai batzuek ere, hala nola gazitasunak eta ingurumeneko CO_2 kontzentrazioak, aldaketak eragiten dituzte landare-metaboloman, eta, beraz, horien eragina ere aztertu behar da [105], [106]. Funtsezkoa da estres-faktoreek, konbinatuta edo modu independentean aplikatzen direnean, ez dietela berdin eragiten landareen estres-tolerantzia mekanismoak aktibatzen dituzten geneei kontuan hartzea. Landarearen estres-tolerantzia bere material genetikoaren arabera arautzen denez, aplikatutako estimuluen eragin zehatza ebaluatzeko, aldagarritasun biologikoa minimizatu behar da biomarkatzaileen eta ingurumen-estresaren arteko korrelazioa zehaztu ahal izateko [107]. Horrekin bat etorriz, landareen errendimendu prediktiboko eredu sendo bat eraikitzeko diseinu esperimental zorrotza behar da. *10. Irudian* laburbiltzen denez, diseinu esperimentalak ikerketaren alderdi guztiak definitu behar ditu, eta, estres abiotikoko faktoreak alde batera utzita, erantzun beharreko galdera biologikoaren arabera diseinatu behar da [108]. Planifikazio optimizatu batek landare-barietatea edo -laborea, ernetzea, haztea, biltzea eta lan-fluxua hautatzea dakarten urrats guztiak azaldu behar ditu, akats esperimentala minimizatuz eta proiektuaren bideragarritasun tenporala eta ekonomikoa ahaztu gabe [109].

Estres abiotikoen simulazio egokia funtsezkoa da markatzaile fidagarriak lortzeko. Jarduteko modu egokia aztertutako faktoreak baldintza oso kontrolatuetan mantentzea da gainerako parametroak maila optimoan mantenduz, landareen erantzunetan beraien eragina nabarmena ez izateko asmoarekin [110]. Hala ere, ingurune jakin bateko egoera lortu nahi denean, ingurune horren arabera ezarri behar dira estres abiotikoko faktoreak (arestian zerrendatutako horiek). Gainera, estresa sortzeko garapen-momentu egokia aukeratzea ere funtsezkoa da, landareen garapenean metaboloma aldatzen delako. Landareek aklimatazio aldi bat jasan beharko dute tratatu aurretik, espeziearen eta tratamenduaren beraren arabera alda daitekeena. Horrela,

landareen errendimendu-eredu prediktiboa garatzeko nahi diren biomarkatzaileak aurkitzeko eta denboran zeharreko bi baldintzetan hazitako landareen metabolito-profila alderatzeko helburuekin, landareak bai ingurumen-estresaren baldintzetan eta bai baldintza estandarretan hazten dira.



10. Irudia: Estres abiotikopeko ikerketa metabolomiko baterako diseinu esperimentalaren eskema

Horrez gain, NIR-HSI eta ikasketa automatiko bidezko kannabinoide nagusien kuantifikazioan zentratutako lan berri batzuen *ad hoc* ekarpena aipagarria da. Adibidez, *S. K. Abeysekera et al.*-en lanean [38] NIR-HSI teknologia kannabisaren THCA edukia zehatz balioesteko tresna baliogarria zela frogatu zen. Hau *W. S. Holmes et al.*-ek [39] lortutako ondorioa izan zen ere, baina kasu honetan CBDAri zegokionez, bai loreen, bai hostoen analisian. *Y. Lu et al.*-en [40] ere NIR-HSI-a, ohiko metodo analitikoen aurka, kannabisaren lore-materialeko kannabinoide nagusiak azkar kuantifikatzeko tresna baliagarria izan daitekeela zehaztu zen. Horrela, berriki egindako ikerketa enpirikoek teknologia honek kannabisean hainbat helburutarako duen potentziala erakusten ari dira, parametro analitikoak zalantzan jarri gabe prozedurak sinplifikatuz. Hori dela eta, NIR-HSI bezalako teknika ez-inbaditzaile berritzaileak maizago sartu beharko lirateke kultiboen kalitate kontrolean, landako eta laborategiko lan-kargak murrizte aldera.

Beraz, ikerketa honen helburua zen HSI-ren bideragarritasuna zehaztea izan zen, ikasketa automatikoko planteamendu desberdinekin batera, kannabisaren kemotipoen sailkapen ez-inbaditzailerako. Lan honen irismena kannabisaren kemotipoak sailkatzeko edozein lagin-aurretratamenduren beharra baztertuz metodo zehatz eta fidagarri baten garapena izan da, analisi-prozesua *in-situ* arintzeko, eta horrela, kannabisaren industria medikoan kalitate-kontrola erraztuz. Proposatutako metodologiak kultibo-praktiken hobekuntzarako erabilgarritasun handia dakar kannabisarekin lotutako ikerketan eta baita haren ekoizpenean erabaki egokiak ahalbidetzean ere.

2. Material eta metodoak

2.1. Kannabis landareen kultibazioa

Kannabis landareak Sovereign Fields S.L.-ren instalazioetan kultibatu ziren (Larramendi 3 kalea, Donostia-San Sebastian 20006, Espainia). Landareak 11 L-ko loreontzi beltzetan hazi ziren, lur/hummus/elikagai nahasturatekin. Zehazki, nahasturak Biobizz Worldwide S.L. -ko (Lezama-Leguizamon parke industriala, Gorbeia 11 kalea, Etxebarri 48450, Espainia) "Light mix soil" -a izan zuen % 80ean, eta hummusa % 20ean. Horrez gain, nahastura honi Lurpe Natural Solutions-eko (Zubiate 3 kalea, Lemoa 48330, Espainia) 10 $g \cdot L^{-1}$ "Farmer mix nutrient solution" ere gehitu zitzaion, saguzar guanoz, hezur-irinez, alga-irinez, Azomitea®z, alpalpa organikoaz, intsektu-zaborraz, odol-irinez, dolomitaz, langbeinita azido humikoz eta fulbikoz, eta, errizobakterioz eta trikodermaz osatuta dagoena. Kultibo denbora, guztira, 12 aste izan ziren: lehen 4 asteak landareen etapa begetatiboari zegozkion, landareen hazkuntza-aldia izan zena, eta hurrengo 8 asteak, lorakuntza-etapari. Etapa hauek argialdi erregulazioak definitu zituen: 18 ordu argi/6 ordu ilun etapa begetatiborako, eta 12 ordu argi/12 ordu ilun, lorakuntza-etaparako. Landareen NIR-irudi hiperespektralak kultibo-denborako hamargarren astean eskuratu ziren.

57 landare-banakoen NIR-irudi hiperespektralak eskuratu ziren lan honetan, hurrengo barietateetan banatuta: 10 *Dairy Queen* (DQ), 9 *Futura 75* (FT), 10 *Remedy* (RE), 8 *Roma* (RO), 10 *Tel Aviv* (TA) eta 10 *White Widow* (WW). Landare-banako bakoitza zenbakitua izan zen.

2.2. Kannabinoideen analisia

Kannabis barietate bakoitzaren kemotipoa definitzeko kannabinoideen kontzentrazioa Sovereign Fields S.L.-ren instalazioetan neurtu zen ultramore detektagailu bati akoplatutako kromatografia likido (LC-UV) bidez, *Aizpurua-Olaizola et al.* laneko metodoa jarraituz [15]. Lortutako emaitzak kemotipoa definitzeko erreferentzia gisa erabili ziren eta hurrengo sailkapena zehaztu zen: TA, RO eta DQ barietateak I kemotipo taldean definitu ziren ($[THC_{Totala}]/[CBD_{Totala}] > 10$); RE eta WW barietateak, II kemotipo taldean ($0.3 < [THC_{Totala}]/[CBD_{Totala}] < 3$); eta FT barietatea, III kemotipoan ($[THC_{Totala}]/[CBD_{Totala}] < 0.1$) [18].

2.3. NIR-irudi hiperespektralen eskurapena

Irudiak *in-situ* hartu ziren, eguzki argipean, landa-muntaidun HySpex SWIR 384 kamera hiperespektrala erabiliz (HySpex by NEO, Østensjøveien 34, N-0667 Oslo, Norvegia). Irudiak udako egun berean (2021eko uztailaren 2-an) eskuratu ziren 09:00 eta 14:00 arteko ordu tartean.

Kamera hiperespektralaren espektro-eremua 930-2500 nm tartean definituta egon zen, 288 kanal espektraletan banatuta 5.45 nm-ko espektro bereizmenarekin, eta bereizmen espaziala 384 x 286 pixelekoa izan zen. Kamera 3 metroko distantziako lentearekin hornituta egon zen eta zelai-muntaiaren tripodearen errotorearen errotazio-angelua 16°-koa izan zen, 841 mm-ko ikuseremu lineala (FOV) lortuz. Ondorioz, irudien pixelek 2.19/2.19 mm-ko tamaina izan zuten.

Irudi hiperespektralak eskuratzeko, landare-banakoak Sovereign Fields S.L.-ren negutegi barruko pareta zuri baten aurrean kokatu ziren. Honen aurrean, paretarekiko perpendikularki, kameraren tripodea loreontzitik 3 metrora kokatu zen. Kameraren 16°-ko biraketa angelua kontuan izanda, landarea FOV-aren zentruan lerrokatu zen. Parametro guztiak ezarrita, irudiak ENVI ® irudi hiperespektralak prozesatzeko softwarearekin eskuratu eta erradiometrikoki kalibratu ziren (NV5 Geospatial Solutions, Inc., Broomfields, Colorado, AEB). Aldi bakoitzean landare-banako baten irudiak hartu ziren.

2.4. Irudi hiperespektralen analisia

NIR-irudi hiperespektralak MATLAB ingurunera (The MathWorks Inc., USA) inportatu eta HYPER-Tools 3.0 (libreki eskuragarri www.hypertools.org-en) erabiliz maneiatu ziren [41].

NIR-irudi hiperespektraletatik 502 lore-espektro atera ziren guztira, eskuzko lore-pixel aukeraketaren bitartez: 249 I kemotipoari zegozkienak, eta, II eta III kemotipoko 178 eta 75, hurrenez hurren. Horiez gain, irudi guztietatik, 219 zurtoin espektru aukeratu ziren guztira, landareen zurtoinetako pixel-ak eskuz aukeratuz, *2. Irudian* ikus daitekeen bezala. Aukeratutako espektruei Savitzky-Golay deribatua (7-ko leiho zabalera; bigarren polinomio ordena; lehen deribatu ordena) eta batezbesteko zentratua aplikatu zitzaien datuen aurretratamendu moduan, gerorako sailkapen ereduak trebatzeko.



<u>2. Irudia:</u> Zegozkien sailkapen ereduen trebakuntzarako espektruak ateratzeko lore- eta zurtoin-pixelen eskuzko aukeraketa landare banako desberdinen irudi hiperespektraletan a) DQ5 banakoa b) TA6 banakoa c) RO6 banakoa d) RE2 banakoa e) WW5 banakoa f) FT9 banakoa

Kemotipoen iragarpen zuzenerako eta datuen bistaratze egokirako, irudi bakoitzaren atzealdea ezabatu zen. Hori egiteko, PCA aplikatu zen irudi bakoitzean, batezbesteko zentratuaren ostean [42], [43]. Bigarren osagai nagusiko *score*-ek landare-banakoen egokitasun morfologikoa ahalbideratu zuten, batez ere loreetan fokatutakoa, horrela irudien atzealde irregularra ezabatzeko aukera emanez, *3. Irudian* ikus daitekeen bezala.



<u>3. Irudia:</u> PCA bidezko maskaratze morfologikoa DQ4 landare-banakoan a) Landarearen RGB irudi faltsua b) 1, 2 eta 3. osagai nagusietako laginen-proiekzioak (scores) eta aldagaien-proiekzioak (loadings) c) Landarearen RGB irudi faltsu maskaratua

Lan honetan PLS-DA ereduan oinarritutako bi sailkapen estrategia proposatu ziren [44]. Lehen hurbilketa, kalibrazio-eredua hiru kemotipoen 502 lore-espektru sortarekin zuzenean trebatuz gauzatu zen. Bestalde, bigarren estrategia bi mailako eredu hierarkikoan oinarritu zen: lehen mailan, 502 lore-espektruen eta 219 zurtoin-espektruen bidez trebatutako sailkapen ereduarekin, zurtoina landarearen gainerakotik sailkatzeko hurbilketa proposatu zen; bigarren mailan, landarearen zurtoinari ez zegokion zatia hiru kemotipoen artean sailkatu zen aurretiaz 502 lore-espektruen bidez trebatutako sailkapen eredua erabiliz. Sailkapen ereduak PLS_Toolbox 9.0 (Eigenvector Reseach, USA) erremintaren bidez garatu ziren eta ausazko azpimultzoen zeharkako berrespena aplikatu zitzaien, 10 datu-banaketarekin eta 5 errepikapenekin.

Sailkapen-ereduen trebakuntzarako erabili ez ziren pixelak gerora iragarri ziren hauen bidez irudi hiperespektral guztietan.

3. Emaitzak eta eztabaida

3.1. Kannabinoide nagusiek karakterizazioa

Barietate bakoitzaren kemotipoa haien lore lehor lagin bateratuaren kromatografia bidezko analisi suntsitzaile bidez definitu zen. Zegozkien kannabinoide nagusien kontzentrazioak *1. Taulan* agertzen dira, non DQ, TA eta RO I kemotipoko barietateak izan zirela ikus daitekeen, WW eta RE barietateei II kemotipoa egokitu zitzaien eta FT III kemotipoko barietate bakar moduan sailkatu zen.

1. Taula: LC-UV bidez zehaztutako THC eta CBD kannabinoideen kontzentrazioak kannabis barietate desberdinen lore lehorretan, eta barietate bakoitzari dagozkien kemotipoak

	Kannabinoide kontzentrazioa (% m/m)			
Barietatea	**THC totala**	**CBD totala**	**[THC_{Totala}]/[CBD_{Totala}]**	**Klasea**
White Widow	5.6	7.5	0.75	II Kemotipoa
Dairy Queen	20.2	0.7	28.86	I Kemotipoa
Tel Aviv	16.9	0.2	84.50	I Kemotipoa
Roma	17.3	0.2	86.50	I Kemotipoa
Futura 75	0.7	15.6	0.04	III Kemotipoa
Remedy	6.8	8.8	0.77	II Kemotipoa

3.2. PLS-DA ereduaren errendimendua

3.2.1. PLS-DA ereduaren trebakuntza

Hiru kemotipoak sailkatzeko eredua 8 aldagai latente (LV) erabiliz trebatu zen. Ereduaren zeharkako berrespena ausazko azpimultzoketa bidez egin zen, hiru klaseek pisu estatistiko desberdinak baitzituzten, 5 errepikapenetan permutatutako 10 datu banaketekin. Zeharkako berrespenak eman zituen sentikortasun- eta espezifikotasun-balio optimoak honako hauek izan ziren klase bakoitzerako: 0.845/0.845 I kemotiporako, 0.954/0.920 II kemotiporako eta 0.888/0.925 III kemotiporako. Klase bakoitzari zegozkien jasotako funtzionamendu-ezaugarrien (ROC) kurbak *4. Irudian* agertzen dira.

Sailkapen-ereduaren fidagarritasuna bermatzeko, 100 iterazioko permutazio-froga bat egin zen trebakuntzarako erabilitako datuekin, ereduaren esangura estatistikoa egiaztatzeko. Honen arabera, ereduaren iragarpen-gaitasuna gehiegi egokitutakoa den ala ez zehazten da, hau zorizko emaitza ala dagokien lagin-aldagaien arteko korrelazioaren emaitza dela egiaztatuz [45]. Ereduaren ausazko probabilitatea Wilcoxon probaren bidez frogatu zen [46], non, bai bere kabuz iragarritako emaitza, bai zeharka-berretsitako emaitza, 0 izan zen kemotipo klase bakoitzerako. Beraz, eredua estatistikoki irmoa eta esanguratsua zela egiaztatu zen, hau da, ereduaren zeharka-berretsitako parametroak eta haren iragarpen-gaitasuna ez zeudela ausazko faktoreen eraginpean, eta, ondorioz, iragarpen emaitza oro aldagaien eta klaseen arteko korrelazioaren egiazko emaitza izango litzatekeela.



4. Irudia: Kalkulatutako (urdina) eta zeharka berrestutako (berdea) ROC kurbak eta kalkulatutako (lerro jarraia) eta zeharka berrestutako (lerro etena) erantzun kurbak a) I kemotipoa b) II kemotipoa c) III kemotipoa

3.2.2. PLS-DA ereduaren kanpo-berrespena

Landare bakoitzean iragarritako kemotipoen probabilitateak Material Osagarriaren (SM) *S1 Taulan* aurkezten dira. Irudien pixel bakoitzean dagokion kemotipoa iragartzeko gutxieneko atalasea % 50eko probabilitatean ezarri zen. Honekin batera, landare-banako bakoitzaren kemotipoaren kanpo-iragarpenerako araua ezarri zen, gutxienez irudi bat osatzen zuten pixelen % 50a kemotipoetako batean sailkatu behar zirela ezartzen zuena. Aitorpen honen arabera egiazko klase bakoitzaren kasuan iragarritako kemotipoak *2. Taulan* erakusten dira.

2. Taula: Trebatutako PLS-DA sailkapen ereduaren bidez 3 kemotipoei zegozkien 6 kannabis barietateetako 57 landare-banakoen egiazko eta iragarritako kemotipo klaseak

		Iragarritako klasea (Kemotipo probabilitatea > 50 %)				
		I Kem.	II Kem.	III Kem.	Ez-sailkatua	
Egiazko klasea	I Kem. (n=28)	25	2	0	1	28
	II Kem. (n=20)	0	20	0	0	20
	III Kem. (n=9)	2	0	6	1	9
		27	22	6		Guztira=57

2. Taulan aurkeztutako emaitzen arabera 4 landare-banako gaizki sailkatu zirela ondorioztatu daiteke (% 7.02 sailkapen okerreko proportzioa). Beste bi landare-banakoak ez ziren klaseetako batean ere ez sailkatu (% 3.52 ez-sailkapen proportzioa), beraz, 57 landare-banakotik, 51 izan ziren zuzen sailkatutakoak (% 89.47ko egiazkotasuna). Zentzu honetan, II kemotipoko landare guztiak zuzen sailkatu zirela (% 100 egiazkotasuna) aipatzea merezi du. Emaitza onenak klase honi egokitzea espero zen, sailkapen-ereduaren trebakuntzan sentikortasun eta espezifikotasun balio altuenak aurkeztu zituen eta (0.954 eta 0.920, hurrenez hurren). Honetaz aparte, I kemotipoko landareen zenbatekoa handiena izan zen hiru klaseen artean (n=28). Klase hau hiru barietate desberdinek osatu zuten, sailkapen okerreko proportzio handiago batera gida zezakeen faktorea, landare-banakoen arteko aldakortasun biologiko handiagoagatik. Hau izan liteke klase hau osatzen duten 28 banakoetatik 25 soilik zuzenki iragarri izanaren arrazoia (%89.29ko egiazkotasuna). Azkenik, sailkapen-ereduak emaitza okerrenak eman zituen III kemotipoko landareetan. Kasu honetan, 9 landare-banakoetatik 6 bakarrik sailkatu ziren modu egokian (% 66.67ko egiazkotasuna). Orokorrean, emaitza hauek ez lirateke egokiak izango sailkapen-eredu adierazgarri baten garapenerako. Hala ere, jazoera hau sailkapen-ereduaren partzialtasunaren ondorioa izan liteke. Bada, iragarpen emaitzei begirada sakonago bat botaz, ikus liteke, orokorrean, landareen zurtoina I kemotipoan sailkatzen zela, landare-banako bakoitzaren kemotipoa edozein zela ere. Hain zuzen ere, partzialtasun hau nabariagoa da III kemotipoko landareetan, non I kemotipoan sailkatutako pixel kopuruak irudien proportzio esanguratsua barne hartzen zuen. Ondorioz, sailkapen-eredua bi sailkapen mailatan hierarkizatu zen, irudietan landareen zurtoina aparteko klase moduan kontuan hartzeko. Planteamendu aldaketa honek iragarpen partzialtasun hau deuseztea espero zen, horrela iragarpen-gaitasun hobea edukiko zuen sailkapen-eredu bat lortuz.

3.3. HPLS-DA ereduaren errendimendua

3.3.1. HPLS-DA ereduaren trebakuntza

HPLS-DA ereduaren lehen sailkapen-mailak landareen zurtoinen eta zurtoina ez ziren zatien pixelen arteko sailkapenean zetzan. Eredu honek, zurtoinari ez zegokion landare zatian, zeharka-berretsitako 0.986ko eta 0.995eko sentikortasun- eta espezifikotasun-balioak aurkeztu zituen hurrenez hurren, eta 0.995ekoak eta 0.986koak, zurtoinaren kasuan, 4 LV-rekin (*5. Irudia*). HPLS-DA-ren bigarren sailkapen-maila aurretiaz trebatutako PLS-DA ereduari zegokion (3.2.1. atala).



5. Irudia: Kalkulatutako (urdina) eta zeharka-berretsitako (berdea) ROC kurbak eta kalkulatutako (lerro jarraia) eta zeharka-berretsitako (lerro etena) erantzun kurbak a) Zurtoinetik aparteko klasea b) Zurtoin klasea

3.3.2. HPLS-DA ereduaren kanpo-berrespena

HPLS-DA ereduaren bidez landare-banako bakoitzarentzat iragarritako kemotipoen probabilitateak SM-ko *S2 Taulan* aurkezten dira. Pixel bakoitzean dagokion kemotipoa iragartzeko gutxieneko atalasea % 50eko probabilitatean finkatu zen ere, aurreko PLS-DA-ren bidezko iragarpenen kasuaren moduan. Hala eta guztiz ere, kasu honetan, landareen kemotipoaren iragarpenerako, irudi bakoitza osatzen zuten pixel guztien artean zurtoinari zegozkien pixelak kontuan hartu ziren ere, bai banakoen artean, bai barietateen artean, landarearen tamaina eta morfologia aldatzen baitzen. Horrela ere, sailkapen-arau bat ezarri zen bigarren sailkapen mailan, gutxienez landarea osatzen zuten zurtoinetik aparteko pixelen % 50a kemotipoetako batean sailkatu behar zirela adieraziz. Adierazpen honen arabera, *3. Taulan* landareetan iragarritako kemotipo klaseak benetan zegozkien klaseekin bateratuta aurkeztu dira.

3. Taulan aurkeztutako emaitzen arabera, ez zen sailkatu gabeko landare-banakorik gelditu HPLS-DA-ren bidezko kemotipoaren iragarpenean, beraz, landare-banako guztietan % 50a baino probabilitate handiagoko sailkapena gauzatu zen kemotipoetako batean (% 0.00 ez-sailkapen proportzioa). Hala ere, 57 landare-banakotik 5 ez ziren zuzenki sailkatu (% 91.23ko egiazkotasuna, % 8.77ko sailkapen okerreko proportzioa). PLS-DA-ren kasuan bezala, II kemotipoko banako guztiak zuzenki sailkatu ziren (% 100eko egiazkotasuna), baina III kemotipoko landareen kasuan, emaitzak hobetu egin ziren, 9 landare-banakotik 8tan sailkapen zuzena lortuz (% 88.89ko egiazkotasuna). III kemotipoko landare kopurua kontuan hartuz, emaitza hau hobekuntza nabarmena izan zen PLS-DA-ren bidez lortutako emaitzekiko (% 22.22ko hobekuntza). Hala ere, I kemotipoko egiazkotasun proportzioa jaitsi egin zen (% 3.58ko jaitsiera), 28 landare-banakotik 24 zuzenki sailkatu baitziren (%85.71eko egiazkotasuna).

3. Taula: Trebatutako HPLS-DA sailkapen ereduaren bidez 3 kemotipoei zegozkien 6 kannabis barietateetako 57 landare-banakoen egiazko eta iragarritako kemotipo klaseak

		Iragarritako klasea (Kemotipo probabilitatea > 50 %)				
		I Kem.	II Kem.	III Kem.	Ez-sailkatua	
Egiazko klasea	I Kem. (n=28)	24	4	0	0	28
	II Kem. (n=20)	0	20	0	0	20
	III Kem. (n=9)	1	0	8	0	9
		25	24	8		Guztira=57

3.4. Sailkapen ereduen arteko konparaketa

Orokorrean, *4. Taulan* aurkezten diren emaitzak kontutan hartuz eta PLS-DA eta HPLS-DA ereduak konparatuz, esan liteke eredu hierarkikoak PLS-DA ereduak baino emaitza hobeak lortu zituela sailkatu gabeko landarerik ez baitzen gelditu. *6. Irudian* iragarpen-adibide batzuen bistaratzea ikus daitezke, non, adibidez, III kemotipokoa den FT2 landare-banakoa, PLS-DA ereduaren bidez I kemotipoan sailkatu zela ikus daitekeen, eta aldiz, HPLS-DA ereduaren bidez zuzenki sailkatu zen. Azken honek iragarpen-gaitasun orokorra hobetu zuen, III kemotipoaren egiazkotasuna hobetu baitzuen zurtoinaren partizaltasunaren deuseztatzea zela eta. Ondorioz, lortutako emaitzak egiazkoenganako hurbilagoak izan ziren.

4. Taula: Sailkapen-ereduen iragarpen-gaitasunaren konparaketa

	PLS-DA	**HPLS-DA**
Egiazkotasun orokorra	% 89.47	% 91.23
I Kemotipoa	% 89. 29	% 85.71
II Kemotipoa	% 100.00	% 100.00
III Kemotipoa	% 66.67	% 88.89
Sailkapen okerren proportzioa	% 7.02	% 8.77
Ez-sailkapen proportzioa	% 3.51	% 0.00



6. Irudia: PLS-DA (ezkerra) eta HPLS-DA (eskuina) bidezko kemotipoen iragarpen adibideak landare desberdinetan: a) RO3 landare-banakoa (I kemotipoa) b) WW10 landare-banakoa (II kemotipoa) c) FT2 landare-banakoa (III kemotipoa)

3.5. Kontzeptu frogaren baieztapena

Bi ereduen kasuan, bi landare-banako zehatzetan dudarik gabeko sailkapen okerra gertatu zen. Bi banako horiek, Tel Aviv 3 eta Tel Aviv 4 izan ziren, teorikoki I kemotipoari zegozkienak, baina probabilitate ia osoz II kemotipoan sailkatu zirenak. Tel Aviv 3 banakoaren kasuan, PLS-DA ereduaren bidez lortutako probabilitate emaitzak % 8.05koa izan zen I kemotipoarentzat, % 91.95koa II kemotipoarentzat eta % 0.00koa III kemotipoarentzat; HPLS-DA-ren bidez, ordea, iragarritako probabilitatea % 1.33koa izan zen I kemotipoarentzat, % 98.67koa II kemotipoarentzat eta % 0.00koa III kemotipoarentzat. Tel Aviv 4 banakoaren kasuan, iragarpen emaitzak antzekoak izan ziren. PLS-DA-k % 9.02ko probabilitatea eman zuen I kemotipoarentzat, % 90.98koa II kemotipoarentzat eta % 0.00koa III kemotipoarentzat; HPLS-DA-ren bitartez, berriz, balio hori % 0.09koa izan zen I kemotipoarentzat, % 99.91koa II kemotipoarentzat eta % 0.00koa III kemotipoarentzat. Bi banakoak era esanguratsuan sailkatu ziren II kemotipoan eta, nahiz eta emaitza hauek nekez sinesgarriak izan, kultibazio instalazioetatik eratorritako landareen etiketatze akats baten ondorioz baliteke zuzenak izatea. Jazoera hau gerora egiaztatu zen, zeren eta, irudien eskuratze momentuan, WW (II kemotipoa) landare batzuk gaizki

etiketatuta egon baitziren eta haien trazabilitatearen kontrola galdu baitzen. Hortaz, bi banako zehatz hauen beste TA eta WW landareenganako konparagarritasuna aztertzeko *Student t*-test bat egin zen talde horien iragarpen-emaitzen artean [47]. *t* froga estatistikoak bi taldeen arteko bariantza berdinen sinesmenaren bitartez kalkulatu ziren. Alde batetik, TA3 eta TA4 banakoak Tel Aviv barietateei egokitzearen suposizioa proposatu zen hipotesi nulu moduan, bi banako horietan I kemotipoarekiko lortutako probabilitate emaitzak klase honetako banakoen emaitzekin konparatuz. Beste aldetik, hipotesi nulu moduan bi landare-banako horien WW barietatearekiko antzekotasuna aztertu zen, horretarako bi banako horietan II kemotipoarekiko lortutako probabilitateak azken barietate honetako landareetan lortutako probabilitatearekin konparatuz. Bi kalkuluak, *5. Taulan* erakusten direnak, HPLS-DA ereduaren bidez lortutako probabilitate emaitzekin egin ziren.

5. Taula: TA3 eta TA4 landare-banakoen eta TA barietateko beste landareen arteko, eta, TA3 eta TA4 landare-banakoen eta WW barietateko landareen arteko t-test estatistikoa

	***t*-Testa: Bi talde, bariantza berdinak suposatuz (α=0.05)**			
	I Kemotipoa		II Kemotipoa	
	TA3 eta TA4	Gainontzeko TA-ak	TA3 eta TA4	WW-ak
Batez bestekoa	0.71	69.66	99.29	92.80
Bariantza	0.77	103.10	0.77	38.01
Behaketak	2	8	2	10
Bariantza taldekatua	90.31		34.29	
t estatistikoa	-9.18		1.43	
P(T≤t) buztan batentzako	8.03E-06		0.09	
t Kritikoa buztan batentzako	1.86		1.81	

t-test estatistikoaren emaitzek TA3 eta TA4 banakoen TA barietatearekiko egokitzapenaren hipotesi nulua ezeztatu zuten, kalkulatutako *t* -9.18 izan baitzen (Buztan batentzako *t* kritikoa = 1.86), WW barietatearekiko antzekotasuna onartu zuen bitartean (kalkulatutako *t* = 1.43, buztan batentzako *t* kritikoa = 1.81). Hau horrela izanda, landare-banako hauek WW moduan zuzenki etiketatu izan balira, HPLS-DA ereduaren bitarteko iragarpenak nabarmenki hobetuko lirateke, I kemotipoaren kasuan % 92.31ko egiazkotasuna lortuz, % 100.00ekoa II kemotipoaren kasuan, eta III kemotipoarentzako % 88.89ko egiazkotsauna ezarriz. Era berean, sailkapen okerreko proportzioa % 5.26ra jaitsi da eta soilik 3 landare-banako geldituko baitziren gaizki iragarrita. Horrela, HPLS-DA ereduaren iragarpenen egiazkotasun orokorra % 94.74an geldituko litzateke, sailkapen ereduarentzako iragarpen-gaitasun zehatza izango zena. Hipotesi hau onartuz, klase bakoitzaren kasurako iragarritako batezbesteko probabilitateak *6. Taulan* aurkeztu dira. Emaitza hauen arabera, II kemotipoko landareentzako sailkapen errendimendua bikaina izan da, % 5.59-

ko doitasuna duen batezbesteko iragarritako probabilitatea % 96.63koa izan baita. Beste kasuetan, iragarritako batezbesteko probabilitate- eta doitasun-emaitzak % 67.85 eta % 15.10 izan dira I kemotipoko landareentzat, eta, % 61.75 eta % 17.82 III kemotipoaren kasuan, hurrenez hurren. Jazoera hau II kemotipoko landareek bi kannabinoide nagusiak kontzentrazio esanguratsuetan izatearen ondorioz gerta liteke. Kontrara, beste bi klaseek kannabinoide nagusietako bat soilik zeukaten kontzentrazio esanguratsuan, beraz, ondorioztatu liteke bi kannabinoide nagusien presentziak nabarmenki ahalbidetzen duela NIR-irudi hiperespektralaren bidezko sailkapen adierazgarria kannabis barietateetan.

6. Taula: Kemotipo bakoitzean iragarritako batezbesteko probabilitatea, desbiderapen estandarra eta doitasuna, TA3 eta TA4 banakoak WW barietatekoak zirela onartuz

	I Kemotipoa (%)	**II Kemotipoa (%)**	**III Kemotipoa (%)**
Egiazkotasuna	92.31	100.00	88.89
Iragarritako batez besteko probabilitatea	67.85	96.63	61.75
Desbiderapen estandarra	10.24	5.40	11.01
Doitasuna (DEE)	15.10	5.59	17.82

*DEE: Desbiderapen estandar erlatiboa

4. Ondorioak

Lan honetan, *Cannabis sativa L.*-ren NIR-irudi hiperespektralen bidez I, II eta III kemotipoetako barietateak era esanguratsuan sailka daitezkeela ondorioztatu zen, horrela teknika analitiko inbaditzaileak ekidinez. Hau posiblea izan zen bi mailan hierarkizatutako sailkapen eredu baten bitartez: lehen sailkapen-mailan landarearen zurtoina eta zurtoinari ez zegozkion atalak sailkatu ziren, eta bigarren mailan zurtoina ez zen landare zatia hiru kemotipoetako batean sailkatu zen, NIR informazio espektralean oinarrituta. HPLS-DA ereduari dagokionez, iragarpen emaitzek erakutsi zuten II kemotipoko landareak bikain sailkatzen zirela, I eta II kemotipoen kasuan 2 eta 1 landare-banakok sailkapen okerra izan zuten bitartean, hurrenez hurren. Hau, % 94.74ko sailkapen orokorreko egiazkotasunean itzultzen da, sailkapen errendimenduaren kontzeptu froga egokia izan zena. Gainera, aurretiaz aipatu den bezala, TA3 eta TA4 landare-banakoak, teorikoki I kemotipokoak zirenak, era esanguratsuan sailkatu ziren II kemotipoan. Nahiz eta hau anomalia izan, gerora konfirmatu zen etiketatze-akats bat izan zela kultibazio-instalazioetan landare hauen kultibo denboran zehar, White Widow (II kemotipoa) barietateko landare batzuk gaizki etiketatu ziren eta. Emaitzak okertu beharrean, akats honek ikerketa lan honen helburua enpirikoki frogatzen lagundu zuen, *in-situ* analisiak landareen gaineko kontrol prozedurala ahalbidetu baitzuen, haien loreetan kannabinoideen karakterizazio inbaditzailea saihestuz. Hala ere, esan beharra dago jazoera hau akats iturri potentziala izan ahalko litzateke ela datuetan beste edozein egoeratan, hortaz, derrigorrezkoa da trazabilitatea egokia mantentzea landare-banakoen identifikazioan lagin bolumen handiagoko etorkizuneko landa-lanetako ikerketetan,

landareen izendatze planteamendu zorrotzekin. Gainera, onuragarria izango litzateke sailkapen ereduaren errendimendua kultibazio inguru desberdinetan frogatzea, Sovereign Fields S.L.-ko instalazioetakoez aparte, beste hazkuntza toki batzuetarako emaitzen transferigarritasuna ziurtatzeko.

Hala bada, NIR-HSI-an oinarritutako metodologiak, HPLS-DA-ren bidezko kemotipo sailkapenaren eskutik, NIRS bidezko kannabinoideen analisiaren zailtasun handienari aurre egin zion, hau da, landare biziko hezetasuna, horrela landare-banako bizi baten gaineko analisi adierazgarria ahalbidetuz. Hala ere, berebizikoa da lan honen helburua azpimarratzea, landare bakoitzari zegokion kemotipoaren iragarpen-sailkapena metodologia erraz eta ez-inbaditzaile baten bitartez produkzioko kalitate kontroleko neurri moduan, eta kannabinoideen kuantifikazioarekin ez nahastea, non ohiko metodologia landare-materiala lehortzea eta NIRS ala kromatografia bezalako beste teknika batzuen bidezko analisia izango zena.

Ondorioz, lan honen helburu nagusia lortu egin zen, hau da, labore-kultiboen hazkuntzaren kontrol integralerako kontzeptu-froga, eta are zehatzago, kannabisarena, teknika analitiko ez-inbaditzaile baten bitartez frogatzea. Honek bidea erraztu lezake nekazaritza-sektoreko kalitate-kontrolerako teknologia ez-inbaditzailearen garapenerako, zehaztutako helburua lortu egin baitzen ohiko teknika analitikoak saihestuz, hala nola, kromatografia edo NIR espektroskopia konbentzionala. Hala ere, etorkizunean hau posiblea izateko, sailkapen ereduak trebakuntza datu adierazgarriagoak beharko lituzke. Emaitzen orokortasuna areagotzeko, lagin-kopuru handiagoa beharko litzateke, barietate-aniztasun estaldura zabalagoarekin eta kultibazio-denbora desberdinetako laginekin. Hortaz, ikerketa ildo honetatik aurrera egiteko proposamen egokia sailkapen eredua hiru kemotipoetako barietate kopuru handiagoarekin trebatzea izango litzateke, idealki, kemotipoen arteko pisu estatistikoen desberdintasuna orekatuz, eta hazkuntza-denbora desberdinetan landareen hostoetatik eratorritako hosto-espektruekin konbinatuz. Era honetan, kultibo-denbora desberdinen araberako erregresio joera bat lortuko litzateke, landare-banakoen kemotipoen iragarpena hazkuntza etapa goiztiarretan ahalbidetuz.

Material Osagarria

3. Kapituluko material osagarria esteka honetan ala beheko QR kodean dago eskuragarri:

S1 Taula: PLS-DA ereduaren bidezko kemotipo iragarpenak

S2 Taula: HPLS-DA ereduaren bidezko kemotipo iragarpenak

Bibliografia

[1] L. Cristino, T. Bisogno, and V. Di Marzo, 'Cannabinoids and the expanded endocannabinoid system in neurological disorders', *Nature Reviews Neurology*, vol. 16, no. 1, pp. 9–29, 2020, doi: 10.1038/s41582-019-0284-z.

[2] N. Black *et al.*, 'Cannabinoids for the treatment of mental disorders and symptoms of mental disorders: a systematic review and meta-analysis', *The Lancet Psychiatry*, vol. 6, no. 12, pp. 995–1010, 2019, doi: 10.1016/S2215-0366(19)30401-8.

[3] D. Cox-Georgian, N. Ramadoss, C. Dona, and C. Basu, 'Therapeutic and medicinal uses of terpenes', in *Medicinal Plants: From Farm to Pharmacy*, 2019, pp. 333–359. doi: 10.1007/978-3-030-31269-5_15.

[4] O. Aizpurua-Olaizola, I. Elezgarai, I. Rico-Barrio, I. Zarandona, N. Etxebarria, and A. Usobiaga, 'Targeting the endocannabinoid system: future therapeutic strategies', *Drug Discovery Today*, vol. 22, no. 1, pp. 105–110, 2017, doi: 10.1016/j.drudis.2016.08.005.

[5] 'State Medical Cannabis Laws'. Accessed: Jun. 02, 2023. [Online]. Available: https://www.ncsl.org/health/state-medical-cannabis-laws

[6] 'Recommendation of removal for cannabis and cannabis resin from Schedule IV of 1961 Single Convention on Narcotic Drugs', presented at the United Nations Comission on Narcotic Drugs, Vienna, Dec. 2020. Accessed: Jun. 02, 2023. [Online]. Available: https://www.who.int/news/item/04-12-2020-un-commission-on-narcotic-drugs-reclassifies-cannabis-to-recognize-its-therapeutic-uses

[7] *Kontrollierte Abgabe von Cannabis: Eckpunktepapier der Bundesregierung liegt vor*. 2022. Accessed: Jun. 02, 2023. [Online]. Available: https://www.bundesgesundheitsministerium.de/ministerium/meldungen/kontrollierte-abgabe-von-cannabis-eckpunktepapier-der-bundesregierung-liegt-vor.html

[8] *Federal Act on Narcotics and Psychotropic Substances (Narcotics Act, NarcA)*. 2022. Accessed: Jun. 02, 2023. [Online]. Available: https://www.fedlex.admin.ch/eli/cc/1952/241_241_245/en

[9] J. K. Booth and J. Bohlmann, 'Terpenes in Cannabis sativa – From plant genome to humans', *Plant Science*, vol. 284, pp. 67–72, 2019, doi: 10.1016/j.plantsci.2019.03.022.

[10] M. Maccarrone *et al.*, 'Endocannabinoid signaling at the periphery: 50 years after THC', *Trends in Pharmacological Sciences*, vol. 36, no. 5, pp. 277–296, 2015, doi: 10.1016/j.tips.2015.02.008.

[11] V. Di Marzo, 'New approaches and challenges to targeting the endocannabinoid system', *Nature Reviews Drug Discovery*, vol. 17, no. 9, pp. 623–639, 2018, doi: 10.1038/nrd.2018.115.

[12] C. Muller, P. Morales, and P. H. Reggio, 'Cannabinoid ligands targeting TRP channels', *Frontiers in Molecular Neuroscience*, vol. 11, 2019, doi: 10.3389/fnmol.2018.00487.

[13] S. A. Bonini *et al.*, 'Cannabis sativa: A comprehensive ethnopharmacological review of a medicinal plant with a long history', *Journal of Ethnopharmacology*, vol. 227, pp. 300–315, 2018, doi: 10.1016/j.jep.2018.09.004.

[14] S. Zou and U. Kumar, 'Cannabinoid receptors and the endocannabinoid system: Signaling and function in the central nervous system', *International Journal of Molecular Sciences*, vol. 19, no. 3, 2018, doi: 10.3390/ijms19030833.

[15] O. Aizpurua-Olaizola *et al.*, 'Evolution of the Cannabinoid and Terpene Content during the Growth of Cannabis sativa Plants from Different Chemotypes', *Journal of Natural Products*, vol. 79, no. 2, pp. 324–331, 2016, doi: 10.1021/acs.jnatprod.5b00949.

[16] T. Gülck and B. L. Møller, 'Phytocannabinoids: Origins and Biosynthesis', *Trends in Plant Science*, vol. 25, no. 10, pp. 985–1004, 2020, doi: 10.1016/j.tplants.2020.05.005.

[17] A. I. Fraguas-Sánchez and A. I. Torres-Suárez, 'Medical Use of Cannabinoids', *Drugs*, vol. 78, no. 16, pp. 1665–1703, Nov. 2018, doi: 10.1007/s40265-018-0996-1.

[18] E. Small and H. D. Beckstead, 'Cannabinoid Phenotypes in Cannabis sativa', *Nature*, vol. 245, no. 5421, Art. no. 5421, Sep. 1973, doi: 10.1038/245147a0.

[19] M. A. Lewis, E. B. Russo, and K. M. Smith, 'Pharmacological Foundations of Cannabis Chemovars', *Planta Medica*, vol. 84, no. 4, pp. 225–233, 2018, doi: 10.1055/s-0043-122240.

[20] O. Aizpurua-Olaizola, J. Omar, P. Navarro, M. Olivares, N. Etxebarria, and A. Usobiaga, 'Identification and quantification of cannabinoids in Cannabis sativa L. plants by high performance liquid chromatography-mass spectrometry', *Analytical and Bioanalytical Chemistry*, vol. 406, no. 29, pp. 7549–7560, 2014, doi: 10.1007/s00216-014-8177-x.

[21] M. San Nicolas *et al.*, 'Analysis of cannabinoids in plants, marijuana products and biological tissues', *Comprehensive Analytical Chemistry*, vol. 90, pp. 65–102, 2020, doi: 10.1016/bs.coac.2020.04.002.

[22] S. Chandra, M. M. Radwan, C. G. Majumdar, J. C. Church, T. P. Freeman, and M. A. ElSohly, 'New trends in cannabis potency in USA and Europe during the last decade (2008–2017)', *European Archives of Psychiatry and Clinical Neuroscience*, vol. 269, no. 1, pp. 5–15, 2019, doi: 10.1007/s00406-019-00983-5.

[23] C. Citti, D. Braghiroli, M. A. Vandelli, and G. Cannazza, 'Pharmaceutical and biomedical analysis of cannabinoids: A critical review', *Journal of Pharmaceutical and Biomedical Analysis*, vol. 147, pp. 565–579, 2018, doi: 10.1016/j.jpba.2017.06.003.

[24] P. Berman *et al.*, 'A new ESI-LC/MS approach for comprehensive metabolic profiling of phytocannabinoids in Cannabis', *Scientific Reports*, vol. 8, no. 1, 2018, doi: 10.1038/s41598-018-32651-4.

[25] C. Citti, B. Pacchetti, M. A. Vandelli, F. Forni, and G. Cannazza, 'Analysis of cannabinoids in commercial hemp seed oil and decarboxylation kinetics studies of cannabidiolic acid (CBDA)', *Journal of Pharmaceutical and Biomedical Analysis*, vol. 149, pp. 532–540, 2018, doi: 10.1016/j.jpba.2017.11.044.

[26] M. San Nicolas *et al.*, 'Exploratory optimisation of a LC-HRMS based analytical method for untargeted metabolomic screening of Cannabis Sativa L. through Data Mining', *Analytica Chimica Acta*, vol. 1279, p. 341848, Oct. 2023, doi: 10.1016/j.aca.2023.341848.

[27] C. Sánchez-Carnerero Callado, N. Núñez-Sánchez, S. Casano, and C. Ferreiro-Vera, 'The potential of near infrared spectroscopy to estimate the content of cannabinoids in Cannabis

sativa L.: A comparative study', *Talanta*, vol. 190, pp. 147–157, 2018, doi: 10.1016/j.talanta.2018.07.085.

[28] C. Duchateau, J.-M. Kauffmann, M. Canfyn, C. Stévigny, K. De Braekeleer, and E. Deconinck, 'Discrimination of legal and illegal Cannabis spp. according to European legislation using near infrared spectroscopy and chemometrics', *Drug Testing and Analysis*, vol. 12, no. 9, pp. 1309–1319, 2020, doi: 10.1002/dta.2865.

[29] R. Deidda *et al.*, 'New perspective for the in-field analysis of cannabis samples using handheld near-infrared spectroscopy: A case study focusing on the determination of Δ9-tetrahydrocannabinol', *Journal of Pharmaceutical and Biomedical Analysis*, vol. 202, 2021, doi: 10.1016/j.jpba.2021.114150.

[30] J. Espel Grekopoulos, 'Construction and Validation of Quantification Methods for Determining the Cannabidiol Content in Liquid Pharma-Grade Formulations by Means of Near-Infrared Spectroscopy and Partial Least Squares Regression', *Medical Cannabis and Cannabinoids*, vol. 2, no. 1, pp. 43–55, 2019, doi: 10.1159/000500266.

[31] K. Su *et al.*, 'NIR spectroscopy for rapid measurement of moisture and cannabinoid contents of industrial hemp (Cannabis sativa)', *Industrial Crops and Products*, vol. 184, 2022, doi: 10.1016/j.indcrop.2022.115007.

[32] S. Yao, C. Ball, G. Miyagusuku-Cruzado, M. M. Giusti, D. P. Aykas, and L. E. Rodriguez-Saona, 'A novel handheld FT-NIR spectroscopic approach for real-time screening of major cannabinoids content in hemp', *Talanta*, vol. 247, 2022, doi: 10.1016/j.talanta.2022.123559.

[33] *Commission Delegated Regulation (EU) 2017/1155 of 15 February 2017 amending Delegated Regulation (EU) No 639/2014 as regards the control measures relating to the cultivation of hemp, certain provisions on the greening payment, the payment for young farmers in control of a legal person, the calculation of the per unit amount in the framework of voluntary coupled support, the fractions of payment entitlements and certain notification requirements relating to the single area payment scheme and the voluntary coupled support, and amending Annex X to Regulation (EU) No 1307/2013 of the European Parliament and of the Council*, vol. 167. 2017. Accessed: Nov. 08, 2023. [Online]. Available: http://data.europa.eu/eli/reg_del/2017/1155/oj/eng

[34] C. Jarén, P. C. Zambrana, C. Pérez-Roncal, A. López-Maestresalas, A. Ábrego, and S. Arazuri, 'Potential of NIRS Technology for the Determination of Cannabinoid Content in Industrial Hemp (Cannabis sativa L.)', *Agronomy*, vol. 12, no. 4, 2022, doi: 10.3390/agronomy12040938.

[35] D. Valinger *et al.*, 'Development of ANN models based on combined UV-vis-NIR spectra for rapid quantification of physical and chemical properties of industrial hemp extracts', *Phytochemical Analysis*, vol. 32, no. 3, pp. 326–338, 2021, doi: 10.1002/pca.2979.

[36] J. M. Amigo, 'Chapter 1.1 - Hyperspectral and multispectral imaging: setting the scene', in *Data Handling in Science and Technology*, vol. 32, J. M. Amigo, Ed., in Hyperspectral Imaging, vol. 32. , Elsevier, 2019, pp. 3–16. doi: 10.1016/B978-0-444-63977-6.00001-8.

[37] J. M. Amigo, H. Babamoradi, and S. Elcoroaristizabal, 'Hyperspectral image analysis. A tutorial', *Analytica Chimica Acta*, vol. 896, pp. 34–51, 2015, doi: 10.1016/j.aca.2015.09.030.

[38] S. K. Abeysekera *et al.*, 'Sparse reproducible machine learning for near infrared hyperspectral imaging: Estimating the tetrahydrocannabinolic acid concentration in Cannabis sativa L.', *Industrial Crops and Products*, vol. 192, 2023, doi: 10.1016/j.indcrop.2022.116137.

[39] W. S. Holmes *et al.*, 'On machine learning methods to estimate cannabidiolic acid content of Cannabis sativa L. from near-infrared hyperspectral imaging', presented at the Conference Record - IEEE Instrumentation and Measurement Technology Conference, 2023. doi: 10.1109/I2MTC53148.2023.10175994.

[40] Y. Lu, X. Li, S. Young, X. Li, E. Linder, and D. Suchoff, 'Hyperspectral imaging with chemometrics for non-destructive determination of cannabinoids in floral and leaf materials of industrial hemp (Cannabis sativa L.)', *Computers and Electronics in Agriculture*, vol. 202, 2022, doi: 10.1016/j.compag.2022.107387.

[41] N. Mobaraki and J. M. Amigo, 'HYPER-Tools. A graphical user-friendly interface for hyperspectral image analysis', *Chemometrics and Intelligent Laboratory Systems*, vol. 172, pp. 174–187, 2018, doi: 10.1016/j.chemolab.2017.11.003.

[42] K. Pearson, 'LIII. On lines and planes of closest fit to systems of points in space', *The London, Edinburgh, and Dublin Philosophical Magazine and Journal of Science*, vol. 2, no. 11, pp. 559–572, Nov. 1901, doi: 10.1080/14786440109462720.

[43] H. Hotelling, 'Analysis of a complex of statistical variables into principal components', *Journal of Educational Psychology*, vol. 24, pp. 417–441, 1933, doi: 10.1037/h0071325.

[44] L. Ståhle and S. Wold, 'Partial least squares analysis with cross-validation for the two-class problem: A Monte Carlo study', *Journal of Chemometrics*, vol. 1, no. 3, pp. 185–196, 1987, doi: 10.1002/cem.1180010306.

[45] E. Lopez, J. Etxebarria-Elezgarai, J. M. Amigo, and A. Seifert, 'The importance of choosing a proper validation strategy in predictive models. A tutorial with real examples', *Analytica Chimica Acta*, vol. 1275, p. 341532, Sep. 2023, doi: 10.1016/j.aca.2023.341532.

[46] F. Wilcoxon, 'Individual Comparisons by Ranking Methods', *Biometrics Bulletin*, vol. 1, no. 6, pp. 80–83, 1945.

[47] Student, 'The probable error of a mean', *Biometrika*, vol. 6, no. 1, pp. 1–25, 1908, doi: 10.1093/biomet/6.1.1.

GENERAL CONCLUSIONS AND FUTURE PERSPECTIVES

Overall, it could be stated that the objectives and sub-objectives defined for this research project were achieved.

On the one hand, the intended outcomes regarding the metabolomic study of cannabis were successfully reached. First, a streamlined methodology was optimised based on previous plant metabolomics studies in the literature. By empirical comparison of the experimental variables described in these previous studies, it was concluded that, in order to obtain the broadest possible metabolic coverage in the representative metabolomics study of the cannabis plant, an experimental methodology based on a two-phase chemical extraction through $CHCl_3$:CH_3OH:H_2O (2:1:1, v/v) solvent combination, followed by the use of a C18 reversed-phase chromatographic column for the untargeted analysis by HPLC-qOrbitrap, and the analysis of both inflorescence and leaf as complementary biological tissues for representative screening of the whole plant individual, would have to be adopted. Following this approach, this developed methodology was applied in the untargeted analysis for the search of predictive constitutive metabolic markers for the determination of the adaptability of cannabis cultivars to tropical climate environments. From this investigation it was concluded that the non-polar phase was the extract of interest, as this contained the metabolites that fulfilled the exclusion filters based on the applied statistical criteria, thereby totally excluding the polar-phase extract. Hence, the metabolites Piperochromenoic acid, Mammea C/BB, Dalbergichromene, Dihydrocordoin, Hedichylactone D and 3-[8,13-bis(ethenyl)-18-(1-hydroxy-3-methoxy-3-oxopropyl)-3,7,12,17-tetramethyl-22,23-dihydroporphyrin-2-yl]propanoic acid were statistically determined as the referring markers, and their physiological behaviour as such was confirmed by their metabolic adaptive effect on the cannabis plant.

On the other hand, the feasibility of the NIR-HSI for the traceability and quality control in medical cannabis cultivation sites was confirmed through a proof of concept for the non-invasive chemotype classification of cannabis cultivars. In this case, it was concluded that the key determinant for the accomplishment of the defined objective relied in the multivariate data-analysis approach to be adopted, which entirely depended on the obtained data, since, as it could be observed, the predictive capability towards the classification of chemotype III plants did not result as effective as for chemotype I and II plants. This resulted so due to the lower statistical weight of the model training spectra corresponding to the chemotype III in comparison to the others, as its population was smaller than chemotype I and II's.

Hence, these conclusions set the direction of future perspectives for these research lines. Regarding the metabolomic study of cannabis, the next step would be to transition from an untargeted screening to the development of a targeted analytical method for the quantification of the determined metabolic markers in immature stages of the cultivars, in order to enable the correct decision-making when sending novel cultivars to regions of the world with tropical climates or to identify suitable varieties in the breeding operations of such geographies. To achieve this, the concentration levels of these metabolites in the immature stage of the cultivars of good and bad adaptability would have to be determined, in order to establish a concentration threshold by which to classify the novel varieties of cannabis to be developed in the future through the Mendelian genetics-based breeding process.

On the other hand, regarding the assessment of the feasibility of NIR-HSI for the classification of cannabis chemotypes by means of an easy and non-invasive analysis, the next stage would be to extend the classification model with more cultivars of chemotypes I, II and III, in order to increase the variability between cultivars and therefore render a more representative and

transferable model. Moreover, additional spectroscopic data of chemotype III should be integrated in order to narrow the gap in the statistical weight between the different chemotype classes so as to obtain better prediction results. Furthermore, it could be further considered to extend the scope of this approach to chemotype IV and V cultivars that are currently being developed in the medical cannabis industry, as they are also attracting a great deal of interest for medical purposes. In addition, it would also be of great interest to complement the corresponding multivariate data-analysis approach with spectroscopic data at different stages of cultivation, so as to be able to monitor the plants during the entire cultivation process and thus ensure their traceability without mistake by means of an automated mechanism integrated in the cultivation site itself.